TOLOSAKO UDALA

HORNIDURA KONTRATUA / CONTRATO DE SUMINISTROS

prozedura ireki sinplifikatua / procedimiento abierto simplificado

☒ Arrunta / *Ordinaria* ☐ Presazkoa / *Urgente* ☐ Aurreratua / *Anticipada*

Esp. zk. / *Expte. nº*	**2019HASI0002**

LABURPEN KOADROA / CUADRO RESUMEN

A) BOTERE ESLEITZAILEA / *PODER ADJUDICADOR*

Administrazio kontratatzailea / *Administración contratante*	**TOLOSAKO UDALA / *AYUNTAMIENTO DE TOLOSA***
Kontratazio-organoa / *Órgano de contratación*	**ALKATETZA / *ALCALDÍA***
Zerbitzu kudeatzailea / *Servicio gestor*	**HIRIGINTZA / *URBANISMO***
Kontratazio espedientea hasteko ebazpen data *Fecha resolución inicio del expediente de contratación*	**2019ko uztailaren 8a / 8 *de julio de 2019***
Kontratazio-organoaren helbidea *Dirección del órgano de contratación*	Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa (Gipuzkoa) www.tolosa.eus

B) KONTRATUAREN XEDEA / *OBJETO DEL CONTRATO*

TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA KONTRATUA.

CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE EQUIPOS RETROLED PARA EL AHORRO DE ENERGÍA EN EL ALUMBRADO PÚBLICO DE TOLOSA.

Indalux markako 68 retroled ekiporen hornidura Alliance 2 diseinuko luminarientzat eta 63 retroled ekiporen hornidura Alliance 1 diseinuko luminarientzat. ***Suministro de 68 equipos retroled para la luminaria de diseño Aliance 2 y de 63 equipos retroled para la luminaria de diseño Aliance 1, ambos de la marca Indalux.***	CPV: **31520000-7 Lámparas y accesorios de iluminación**
Loteetan lizitatzeko aukera *Posibilidad de licitar por lotes* ☐ Bai / *Sí* ☒ Ez / *No*	Mugak loteetan / *Limitaciones en lotes:* Ikus I Eranskina / *Ver Anexo I* ☐ Bai / *Sí* ☒ Ez / *No*
Subloteka/partidaka lizitatzeko aukera *Posibilidad de licitar por sublotes/partidas* ☐ Bai / *Sí* ☒ Ez / *No*	

C) KONTRATU ERRESERBATUA / *CONTRATO RESERVADO*

☐ Bai / *Sí* ☒ Ez / *No*	☐	Enplegu-Zentru Berezia / *Centro Especial de Empleo*
	☐	Gizarteratze Enpresak / *Empresas de Inserción Social*
	☐	Bestelakoak (zehaztu) / *Otras (Especificar)*

D) LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA / *PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN*

Lizitazioaren prezioa (BEZ gabe) *Importe de licitación (IVA excluido)*	BEZ aplikagarria *Tipo IVA aplicable*	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ barne) *Presupuesto base de licitación (IVA incluido)*
36.500,00 €	**21%**	**44.165,00 €**
Aurrekontu-partida / *Partida presupuestaria*	**0700.221.11.165.00**	
Prezioa zehazteko sistema *Sistema de determinación del precio*	**OROHARREKO PREZIOAN / *A TANTO ALZADO***	

E) BALIO ZENBATETSIA / VALOR ESTIMADO

	plazo	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2019	2 meses	36.500,00	44.165,00

F) FINANTZIAZIO ERREGIMENA / *RÉGIMEN DE FINANCIACIÓN*

Tolosako Udala / Ayuntamiento de Tolosa	**100 %**

G) URTEKO KUOTAK / *ANUALIDADES*

	plazo	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2019	2 meses	36.500,00	44.165,00

H) IRAUPENA / *DURACIÓN*

Bi hilabete kontratua sinatzen den unetik kontatzen hasita / *Dos meses desde la firma del contrato.*

Luzapena / *Prórroga:* ☐ Bai / *Sí* ☒ Ez / *No*	Luzapenaren epea / *Duración de la prórroga*	Aurreabisu-epea / *Plazo de preaviso:* ☐ Orokorra / General ☐ Espezifikoa / Específico

I) BERMEALDIA / *PLAZO DE GARANTÍA*

Urtebete eta SPKLaren 111.5 artikuluan xedatutakoa betez gero sei hilabete / *un año y si se cumple lo dispuesto en el artículo 111.5 de la LCSP, seis meses.*

J) MANTENUA / MANTENIMIENTO

☐ Bai / Sí Iraupena / Duración: ☒ Ez / No

K) EXEKUZIO BEHARREZKO BALDINTZAK / CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN

12. klausula eta I. eranskineko 24. idatz-zatia / *Cláusula 12 y apartado 24 del Anexo I*

L) PREZIOEN BERRIKUSPENA / REVISIÓN DE PRECIOS

☐ Bai / *Sí* Formula / *Fórmula:* ☒ Ez / *No*

M) ENTREGATZEKO EPEA / PLAZO DE ENTREGA

Bi hilabete kontratua sinatzen den unetik kontatzen hasita / *Dos meses desde la firma del contrato.*

N) JASOTZEKO LEKUA / LUGAR DE RECEPCIÓN

Tolargiren Usabal auzoko udal biltegia / *Almacén municipal de Tolargi en el barrio de Usabal*

Ñ) BEHIN BETIKO BERMEA / *GARANTÍA DEFINITIVA*

☒ Bai / *Sí* ☐ Ez / *No* ☒ Esleipen zenbatekoaren **% 5** (BEZik gabe) / **5 %** *del importe de adjudicación (IVA excluido)* ☐ Esleipena unitateko prezioka bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % / *% del presupuesto base de licitación, caso de adjudicación por precio unitario* ☐ Prezio-atxikipen bitartez bermea eratu izana onartuta / *Admitida constitución mediante retención de precio*	Osagarria / Complementaria ☐ Eskatua / *Exigida:* % ☒ Ez eskatua / *No exigida*

O) SUBROGAZIOA LAN KONTRATUETAN / *SUBROGACIÓN EN CONTRATOS DE TRABAJO*

☐ Bai / *Sí*, Ikusi eranskina / *Ver anexo PPT* ☒ Ez / *No*

P) BEHARREZKO BALIABIDEEN ATXIKIPENA / ADSCRIPCIÓN OBLIGATORIA DE MEDIOS

☐ Bai / *Sí,* Ikus eranskina / *Ver anexo* ☒ Ez / *No*

Q) AZPIKONTRATAZIOA / *SUBCONTRATACIÓN*

Prestazio partzialetarako azpikontratazio baldintzak / *Condiciones de subcontratación para prestaciones parciales:*

Ikus eranskina / *Ver Anexo* **apartado 26 del Anexo I**

☐ Azpikontratazioa onartzen EZ duten zeregin kritikoak / *Tareas críticas que NO admiten subcontratación*

☒ Eskaintzan zehaztu behar da subkontratatzeko aurreikusita dagoen kontratu-zatia / *Obligación de indicar en la oferta la parte del contrato que tenga previsto subcontratar*

R) AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK / *MODIFICACIONES CONTRACTUALES PREVISTAS*

☐ Bai / *Sí,* Ikusi eranskina / *Ver anexo* ☒ Ez / *No*

S) FAKTURAZIO DATUAK / *DATOS DE FACTURACIÓN*

Erakunde kontratatzailea *Entidad contratante*	**TOLOSAKO UDALA / *AYUNTAMIENTO DE TOLOSA***		
Kontratazio-organoa *Órgano de contratación*	**ALKATETZA / *ALCALDÍA***	DIR 3	**L01200718**
Kontabilitate Bulegoa *Oficina contable*	**KONTUHARTZAILETZA / *INTERVENCIÓN***	DIR 3	**L01200718**
Unitate tramitatzailea *Unidad tramitadora*	**HIRIGINTZA / *URBANISMO***	DIR 3	**L01200718**

T) PLEGUEN AURKAKO HELEGITEAK / *RECURSOS CONTRA LOS PLIEGOS*

☐ Kontratua kontratuen arloko errekurtso bereziaren pean dago, Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan / *Contrato sometido a recurso especial en materia de contratación ante el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales del País Vasco*

☒ Kontratua errekurtso arruntaren pean dago / *Contrato sometido a recurso ordinario*

- ☐ Gora jotzeko errekurtsoa / *Recurso de alzada*
- ☒ Aukerako berraztertze errekurtsoa / *Recurso potestativo de reposición*

Errekurtsoa organo honi aurkeztu behar zaio / *Órgano ante el que interponer el recurso* **ALKATETZA / *ALCALDÍA***

U) KONTRATUAREN ZESIOA / *CESIÓN DE CONTRATO*

☐ Bai / *Sí,* Ikusi eranskina / *Ver anexo* ☒ Ez / *No*

V) ERANSKINEN AURKIBIDEA / *ÍNDICE DE ANEXOS*

☒ Eranskina I / *Anexo I*	Kontratuaren ezaugarriak / *Características del contrato*
☒ Eranskina III / *Anexo III*	Abal eredua / *Modelo de aval*
☒ Eranskina IV / *Anexo IV*	Kauzio-aseguru agiriaren eredua / Modelo de certificado de seguro de caución
☒ Eranskina V / *Anexo V*	Informatzeko betebeharra, SPKLren 129. artikuluan xedatua / *Deber de información establecido en el art. 129 LCSP*
☒ Eranskina VI / *Anexo VI*	*Erantzukizunpeko aitorpena eta zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeen irizpideen eskaintza / Declaración responsable y oferta criterios no valorables en cifras o porcentajes*
☒ Eranskina VII / *Anexo VII*	*Zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideen eskaintza / Oferta de criterios valorables en cifras o porcentajes*
☒ Eranskina VIII / *Anexo VIII*	*Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez frogatzea / Integración de la solvencia con medios externos*
☒ Eranskina XI / *Anexo XI*	Datuen babeserako informazioa */ Información sobre protección de datos*

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA, TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ.

AURKIBIDEA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK....7
I. KAPITULUA. Araubide juridikoa....7
1. klausula. Araubide juridikoa....7
II. KAPITULUA Organo kontratatzailea....7
2. klausula. Kontratazio-organoa....8
3. klausula. Kontratu-arduraduna....8
4. klausula. Kontratua egikaritzeaz eta hari jarraipena egiteaz arduratuko den unitatea....9
III. KAPITULUA. Kontratua....9
5. klausula. Kontratuaren xedea eta beharra....9
6. klausula. Balio zenbatetsia....9
7. klausula. Lizitazioaren oinarri-aurrekontua eta kontratuaren prezioa....9
8. klausula. Kreditua izatea....10
9. klausula. Kontratuen iraupena eta prestazioa egikaritzeko epea....10
10. klausula. Kontratuaren luzapena....10
11. klausula. Jakinarazpen telematikoak....11
12. klausula. Egikaritzeko baldintza bereziak....12
13. klausula. Prezioak berrikustea....14
IV. KAPITULUA. Lizitatzailea....14
14. klausula. Kontratatzeko egokitasuna....14
15. klausula. Kaudimena....15
16. klausula. Kaudimena kanpo-baliabideekin frogatzea....16
17. klausula. Kaudimen-baldintzak zehaztea....16
V. KAPITULUA. Adjudikaziorako prozedura....17
Lehenengo atala. Adjudikaziorako prozedura eta irizpideak....17
18. klausula. Prozedura....17
19. klausula. Publizitatea....17
20. klausula. Adjudikaziorako irizpideak....17
Bigarren atala. Bermeak....18
21. klausula. Behin betiko bermea....18
22. klausula. Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea....19
II. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA....19
I. KAPITULUA. Proposamenak....19
23. klausula. Proposamenak aurkeztea....19
24. klausula. Lizitatzailearen dokumentu eta datu konfidentzialak....19
25. klausula. Proposamenen forma eta edukia....20
26. klausula. Dokumentuak zuzentzea....20
27. klausula. Proposamenen edukia....20

28. klausula. Proposamenak aurkeztearen ondorioak.....23
29. klausula. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, baloratzea eta proposamenak irekitzea...23
30. klausula. Erantzukizunpeko adierazpenaren egiazkotasuna egiaztatzea.....24
31. klausula. Ohikoa baino eskaintza baxuagoa.....25
II. KAPITULUA Adjudikaziorako proposamena, adjudikatzea eta hobetzea eta formalizatzea.....25
32. klausula. Adjudikazio-proposamenaren ondorioak. Administrazioak adjudikazio-prozedura bertan behera uztea eta kontratua ez gauzatzeko edo ez adjudikatzeko erabakia hartzea.....25
33. klausula. Kontratua adjudikatzea.....25
34. klausula. Kontratua burutzea eta formalizatzea.....30
III. TITULUA KONTRATUA EGIKARITZEA.....30
I. KAPITULUA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak.....30
Lehenengo atala. Kontratistari egin beharreko ordainketak.....31
35. klausula. Kontratuaren prezioa ordaintzea.....31
Bigarren atala. Kontratistari egin beharreko eskakizunak.....32
36. klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak.....32
Hirugarren atala. Gizarte- eta lan-arloko xedapenak eta gardentasunari buruzko xedapenak.....32
37. klausula. Gizarte-eta lan-arloko eta gardentasunari buruzko betebeharrak.....32
Laugarren atala: Datu pertsonalen babesa eta konfidentzialtasuna.....33
38. klausula. Konfidentzialtasun-betebeharra.....33
39. klausula. Datu pertsonalen babesa.....33
Bosgarren atala. Aseguruak eta kalteen gaineko erantzukizunak.....33
40. klausula. Aseguruak.....33
41. klausula. Kontratistaren erantzukizunak kalte-galerengatik.....33
II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa.....34
42. klausula. Kontratua lagatzea.....34
43. klausula. Azpikontratazioa.....34
III. KAPITULUA Kontratua egikaritzea.....36
Lehenengo atala. Arriskua eta mentura.....36
44. klausula. Arriskua eta mentura.....36
Bigarren atala. Kontratua betetzea.....36
45. klausula. Horniduraren harrera.....36
Hirugarren atala.....36
46. klausula. Egikaritze-okerra eta atzerapena.....36
Laugarren atala: Kontratua aldatzea eta etetea.....37
47. klausula. Kontratua aldatzea.....37
48. klausula. Kontratua etetea.....38
Bosgarren atala: Zehapenak.....38
49. klausula. Zehapenak.....38
IV. KAPITULUA. Kontratua amaitzea.....39
Lehenengo atala. Kontratua amaitzea.....39
50. klausula. Kontratua amaitzea.....39
51. klausula. Kontratuaren harrera.....39

52. klausula. Kontratuaren kitapena.....39
Bigarren atala. Bermealdia.....39
53. klausula. Bermealdia.....39
54. klausulak. Akatsak edo hutsegiteak bermealdian zehar.....40
Hirugarren atala. Administrazioaren eskumenak eta ahalmenak.....40
55. klausula. Administrazioaren eskumenak.....40
Laugarren atala: Kontratua amaitzea.....41
56. klausula. Kontratua amaitzea.....41
Bosgarren atala. Helegiteak.....41
57. klausula. Helegiteak.....41
I. ERANSKINA.....42
II. ERANSKINA.....54
III. ERANSKINA.....57
IV. ERANSKINA.....59
V. ERANSKINA.....62
VI. ERANSKINA.....64
VII. ERANSKINA.....67
VIII. ERANSKINA.....69
IX. ERANSKINA.....70
X. ERANSKINA.....71
XI. ERANSKINA.....73

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA, TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

I. KAPITULUA. Araubide juridikoa

1. klausula. Araubide juridikoa.

Kontratu hau administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoarekin bat. Lege horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikora eraman ziren 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauak. Alderdiek plegu honetan eta haren baldintza tekniko zehatzen orrian jasotakoari men egin behar diote espresuki.

Bi pleguak kontratuzkoak dira, eta, beraz, adjudikaziodunak kontratua formalizatzen duenean sinatu egin behar ditu, haren adostasunaren seinale.

Pleguetan aurreikusten ez denerako, arau hauek gobernatuko dute kontratua: SPKL; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena (817/2009 ED); urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (HAKLAO), aurreko guztiari kontra egiten ez dion guztian. Arau horiek SPKLaren xedapen indargabetzaileak eragiten ez dien eremu guztietan aplikatuko dira.

Edonola ere, lehen aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLri kontra egiten ez dioten eremu guztietan aplikatuko dira.

Kontratuaren klausulak, kontratuaren gainontzeko agiriak eta hitzartutakoaren egikaritzean aplika daitezkeen jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna horiek betetzeko betebeharretik salbuetsiko.

Horrez gain, zuzenbide administratiboko gainontzeko arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

II. KAPITULUA Organo kontratatzailea.

2. klausula. Kontratazio-organoa.

SPKLaren 61. artikuluari jarraikiz, kide bakarreko edo kide anitzeko kontratazio-organoei dagokie sektore publikoko erakundeen ordezkari izatea kontratazioen arloan, legezko edo erregelamenduzko arauaren edo estatutu-xedapenaren arabera haren izenean kontratuak sinatzeko ahalmena badute.

SPKLaren bigarren xedapen osagarriak ezartzen du alkateek eta tokiko erakundeen lehendakariek, kontratazio-organo diren heinean, eskumenak dituztela obretako, hornidurako,

zerbitzuetako eta obren eta zerbitzuen emakidarako kontratuak eta administrazioko kontratu bereziak sinatzeko, baldin eta haien balio zenbatetsia aurrekontuaren baliabide arrunten % 10 baino handiagoa ez bada, eta, edonola ere, sei mila eurokoa ez bada. Kasu horretan sartzen dira ere urte anitzeko kontratuak, haien iraupena lau urtekoa denean gehienez, egin daitezkeen luzapenak barne, baldin eta urteroko guztien zenbatekoen baturak lehen ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arruntei dagokienez aipatutako ehunekoa eta adierazitako zenbatekoa gainditzen ez baditu.

Halaber, udalbatzak kontratazio-organoaren eskumenak edukiko ditu tokiko erakundeak aurreko atalean aipatzen diren kontratuak sinatzen dituenean, haien balioagatik edo iraupenagatik alkateari edo tokiko erakundearen lehendakariari ez badagokio horiek sinatzea, aurreko atalean jasotakoari jarraikiz. Halaber, udalbatzari dagokio administrazio-baldintza orokorren plegua onartzea.

Bestalde, kontratazio-organoek arlo horretan dituzten eskumenak eta ahalmenak eskuordetu edo deskontzentratu ditzakete, administrazio-organoen kasuan eskumenen eskuordetzeari edo deskontzentrazioari aplika dakizkiokeen arauak eta formalitateak betez.

Udaleko kide edo funtzionario bat izango da kontratazio-mahaiaren burua, eta kideen artean egongo dira, idazkaria, edo hala badagokio, aholkularitza juridikoa egotzita duen organoko titularra, eta kontu-hartzailea, edo, hala badagokio, ekonomia- eta aurrekontu-kontrola egotzita duen organoko titularra, eta kontratazio-organoak karrerako funtzionarioen edo udaleko langileen artean izendatzen dituen kideak, behintzat hiru izango direnak. Udaleko funtzionario bat arituko da idazkari.

Halaber, udalean ordezkatuta dagoen talde politiko bakoitzekok kide hautetsi batek kontratazio-mahaian parte hartu ahal izango du, iritzia emateko xede bakarrarekin; horregatik, iritzia eman dezake, baina botorik ez.

Pleguaren I. eranskineko 2. idatz-zatian zehazten da kontratu honetarako kontratazio-organoa zein izango den.

3. klausula. Kontratu-arduraduna.

SPKLaren 62.1 artikuluan jasotakoa betez, kontratazio-organoak izendatzen duen kontratu-arduradunak kontratuaren egikaritzea gainbegiratu, erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak eman beharko ditu, kontratazio-organoak egozten dizkion eskumenen barruan, hitzartutako prestazioa behar bezala burutzen dela ziurtatzeko.

Administrazioak kontratuaren arabera eman beharreko produktuaren ekoizteko edo prestatzeko prozesua ikuskatzeko eta haren berri jasotzeko eskubidea du, eta erabiliko diren materialen azterketak, entseguak edo probak agindu edo bere kabuz egin ditzake, baita kaitatea kontrolatzeko sistemak ezarri eta hitzartutakoa zorrozki betetzeko egoki deritzon aginduak eman ere.

I. eranskineko 2. idatz-zatian zehazten da kontratazio-organoaren kontratu-arduradunak nola gauzatuko dituen kontratua indarrean egon bitartean gainbegiratzeko eta ikuskatzeko ahalmenak eta administrazioak emaitzak jasotzean haiek egiaztatzeko duen eskumena.

4. klausula. Kontratua egikaritzeaz eta hari jarraipena egiteaz arduratuko den unitatea.

SPKLren 62. artikulua betez, plegu honen **I. eranskineko 1. idatz-zatian** zehazten da kontratuaren jarraipenaz eta ohiko egikaritzeaz zer unitate arduratuko den.

III. KAPITULUA. Kontratua.

5. klausula. Kontratuaren xedea eta beharra.

Plegu honetan aipatzen den kontratuaren xedea **haren I. eranskineko 1. idatz-zatian** deskribatzen dena egikaritzea da. Baldintza tekniko berezien orrian jasotzen dira ondasunen deskribapena eta ezaugarriak, adjudikaziodunak prestazioa nola gauzatu behar duen eta aintzat hartu beharreko beste faktore guztiak. Atal horretan bertan aipamena egiten zaie ere kontratuaren bidez bete beharreko behar administratiboei.

SPKLaren 99.3 artikulua betez, kontratazio-organoak kontratuaren xedea loteetan ez banatzea erabaki dezake behar bezala justifikatu beharreko arrazoi onargarriak emanez gero. Kontratu honi dagokionez, plegu honen **I. eranskineko 1. idatz-zatian** loteetan banatu ez izana justifikatzen da.

6. klausula. Balio zenbatetsia.

SPKLaren 101. artikuluan jasotakoa betez, plegu honen **I. eranskineko 4. idatz-zatian** adierazten da kontratu honen balio zenbatetsia.

I. eranskineko 4. idatz-zatian azaltzen da kontratazio-organoak balio zenbatetsia kalkulatzeko zer metodo erabili duen.

7. klausula. Lizitazioaren oinarri-aurrekontua eta kontratuaren prezioa.

Kontratuek beti prezio zehatza edukiko dute, eta eurotan adierazi beharko da.

Plegu honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** adierazten da lizitazioaren oinarri-aurrekontua zenbatekoa den. plegu honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** zehazten dira haren xehakapena eta aurreikusitako urterokoen banaketa. SPKLaren 100. artikuluan eta 301. artikuluan jasotakoarekin bat egin da. Kalkuluan mota guztietako zergak barne hartu dira.

Edonola ere, beste partida batean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) adieraziko da.

Esleipenean lortu daitekeen bajaren ondorioa izango da hornidura handitzea, hau da, kontratuaren helburu diren ondasun-unitate gehiago hornitzea, baldin eta horrela jasotzen bada plegun honetako **I. Eranskineko 5 idatz-zatian**, baina ezin izango da inolaz ere gainditu lizitazioko aurrekontu-oinarriaren zenbatekoa.

8. klausula. Kreditua izatea.

Zerbitzuak plegu honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** adierazten diren kredituen barnean egikarituko dira.

Kontratua Europako Funtsekin finantzatzen bada, Europar Batasuneko Hitzarmenaren xedapenei eta hari jarraikiz zehaztutako egintzei men egin beharko die, eta garapen iraunkorrerako eta ingurumenaren hobekuntzarako Europar Batasuneko jarduerekin, politikekin eta lehentasunekin koherentea izan beharko du. Halaber, hazkundea, lehiakortasuna, enplegua, gizarteratzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu behar ditu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamendua betez. Erregelamendu horren bidez ezartzen dira Lurralde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio-funtsari, Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtsari eta Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsari dagozkion xedapen komunak, eta baita Lurralde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio-funtsari eta Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak, eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EB) indargabetzen da.

9. klausula. Kontratuen iraupena eta prestazioa egikaritzeko epea.

Ondasunak entregatzeko lekua

Plegu honetako **I. eranskineko 8. idatz-zatian** azaltzen dira kontratuaren iraupenaren guztizko epea eta epe partzialak, halakorik dagoenean.

Edonola ere, kontratuen iraupenari eta prestazioa egikaritzeko epeari dagokienez, SPKLaren 29. artikuluan ezarritakoari erreparatu behar zaio .

Baldin eta data finkoa badu errentamendu-kontratua exekutatzeko epeak eta kontratua hasiera batean zehaztutako data baino beranduago adjudikatzen bada, ondorio gisa, exekutatzeko epea murriztu egingo da, kontratistaren prestazioak ere bai, eta behin betiko bermea zein prezioa ere modu korrelatiboan murriztu egingo dira.

SPKLaren 298. artikuluarekin bat etorrita, errentatzaileak edo enpresariak bere gain hartu beharko du, errentamendu-kontratuan, kontratuaren helburua mantentzeko betebeharra, kontratuak irauten duen bitartean.

Ondasunak entregatu behar dira plegu honen **I. eranskineko 9. idatz-zatian** adierazten den lekuan.

10. klausula. Kontratuaren luzapena.

Hornidura-kontratuen aurrerantzeko prestazioak luzatu ahal izango dira SPKLaren 29.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Luzapen hori kontratazio-organoarekin adostu behar da, eta enpresariak nahitaez bete beharko du, baldin eta kontratuaren iraupena amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazten bada. Bi hilabetetik beherako kontratuen kasuan ez da aurrez abisurik egin beharko, SPKLaren 29. artikuluaren 2. idatz-zatian ezarritakoa betez.

Ezingo da luzapenik egin alderdien isilbidezko adostuta.

SPKLaren 29. artikuluaren 2. idatz-zatian ezarritako kontratu-luzapena ez da derrigorrezkoa izango kontratistarentzat, kontratuan SPKLaren 198.6 artikuluan zehazten diren baliogabetzeko arrazoia ematen denean: administrazioak sei hilabetetik gorako atzerapenarekin ordaindu izana.

Hasiera batean eratutako behin betiko bermea luzapen-aldiari aplikatu ahal izango zaio, haren zenbatekoa berriro zehaztu beharrik gabe, luzapenarekin batera kontratua aldatzea adosten ez bada behinik behin.

Plegu honen I. eranskineko 8. idatz-zatian aurreikusten da kontratu hau luzatzeko edo ez luzatzeko aukera.

Edonola ere, SPKLaren 29.4 artikulua betez, hornidura-kontratuen aurrerantzeko prestazioek jarraituko dutela bermatzen duen kontratu berririk formalizatu ez bada, adjudikazio-prozeduran gertatu diren eta kontratazio-organoak aurreikus ezin ditzakeen gertakariek sortutako intzidentzien ondorioz, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da, kontratu berria egikaritzen hasten den arte, eta, edonola ere, bederatzi hilabeteko epean gehienez. Kontratuaren gainontzeko baldintzak bere horretan mantenduko dira, betiere kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

Kasu horretan, luzapena ezin da aurreikusi, ez dagoelako kontratazio-organoaren nahiaren mende; horregatik, balio zenbatetsia zehazterakoan ez da aintzat hartuko, eta ez da beharrezkoa izango aurrez abisua egitea.

Luzapenak kontratua amaitu aurretik onartu behar dira.

11. klausula. Jakinarazpen telematikoak.

Administrazioaren jakinarazpen eta komunikazio guztiak Tolosako Udaleko Jakinarazpen Telematikoko Sistemaren bidez egingo dira. Jakinarazpen horiek jasota geratuko dira Jakinarazpen Telematikoko Zerbitzua-Herritarren Atarian, www.tolosa.eus helbidean.

Zerbitzuek lizitatzaileari eska diezaioketen dokumentazioa Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren bidez bidal daiteke, http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-home/es helbidearen bitartez.

Bi kasuetan, lizitatzaileek sinadura elektroniko aitortu edo gaitu eta aurreratuko sistemak eduki behar dituzte, aplikazio berean jakinarazpenak jasotzea ahalbidetzen dieten sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko gaituetan oinarritzen direnak.

Aipaturiko sistema informatikoak gaituta ez baldin badaude, lizitatzaileek beharrezko dokumentazioa errekerimenduan aipatzen den erregistroaren bidez aurkez dezakete.

Lizitazioaren xede diren eskaintzak aurkezteko, ezingo dira inolaz ere Jakinarazpen Telematikoko Sistema eta Izapideen Euskarri Zerbitzua erabili, ezta dokumentazioa bidaltzeko beste aplikazio informatikorik ere, ezinezkoa delako irekitzen diren arte isilpekoak izango direla bermatu.

12. klausula. Egikaritzeko baldintza bereziak.

Kontratazio-organoek kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ezar ditzakete, betiere haien xedearekin lotuta badaude, SPKLaren 145. artikuluan jasotako zentzuan, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira eta erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira.
Plegu honen **I. eranskineko 22. idatz-zatian** adierazten dira kontratu hau egikaritzeko baldintza bereziak.

Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, plegu honen **I. eranskineko 28. idatz-zatian** zehapenak ezarriko dira edo baldintza hauek funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira SPKLaren 211. artikuluaren f) letran aipatzen diren ondorioetarako.

Kontratua egikaritzean esku hartuko duten azpikontratistek ere kontratua egikaritzeko baldintza berezi horiek guztiak bete beharko dituzte.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna
Baldintza hauek bete behar dira: erabilitako dokumentu guztietan hizkuntza ez-sexista erabili behar da; datu estatistikoak dauzkaten dokumentuetan, sexuka bereizita beharko dute, baldin eta lortzeko aukera badago; pertsonak ez dira giza duintasun handiagoz edo txikiagoz agertuko euren sexuaren arabera; ez dira sexu-objektu bezala agertuko; eta estereotipo sexistak baztertu egin behar dira. Hori guztia ondorengo legeriaren arabera: 3/2007 legea, martxoaren 22koa , emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako dena; 4/2005 legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; eta horiek ordezten dituzten arauak.

Lan egonkortasuna.
Egikaritze baldintza bezala, lana egin behar duten langile mugagabeen kopurua gutxienez %30ekoa izatea ezartzen da.

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzeko, baldintza berezi gisa onartuko du proiektua gauzatuko duten langileen kontratuari dagokion indarreko azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektoriala edo lurraldekoa) ezarritako lan-baldintzak aplikatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi ezin duenik hobekuntzarik sartu hitzarmen horretan xedatutakoaren gainean. Hitzarmen kolektiborik egon ezean, lizitatzaileak gutxieneko lan-baldintza batzuk ezarri ahal izango ditu.

Hizkuntza baldintzak
Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauek erregulatua.

86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, bere 18. artikuluan, euskararen erabilera normalizatzeko planetan bete beharrekoak azaltzen ditu, haien artean hurrengo hau: “18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen”.

Enpresa esleipendunak administrazio kontratugileak dauzkan hizkuntza arauen arabera jokatuko du kontratupean dauzkan zeregin guztietan. Horrela, elkarren arteko harremanak, bai ahozkoak bai idatziak, administrazioak duen lan hizkuntzara egokituko dira.

Zehazki, esleipendunak baldintza linguistiko hauek bete beharko ditu:

Errotuluak, oharrak eta seinaleak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo/eta maiz erabiliak direnean edo/eta ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean. Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, beti ere Euskara zerbitzuarekin aldez aurretik elebitasun formula adostuta.

Esleipendunek euskara edota ele biek erabiliko dituzte megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere. Ele bietako aukera egin behar izanez gero euskarari lehentasuna emanda, baina testua euskara hutsean idatziko da kasu hauetan: hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, esanahia argitzen duen piktograma batek lagundurik dagoenean, euskarazko hitzak ezagunak direnean (Udaltzaingoa, sarrera, irteera...) eta ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta jasotzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean.

Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz burutzeko herritarrek inolako oztoporik ez dutela izango bermatu beharko da, horretarako modurik eraginkorrena delarik kontratu-emailearen langile guztiak elebidunak izatea. Beraz, herritarrekin harreman zuzena izango duten langileak elebidunak izango dira halabeharrez eta helburu hori lortze aldera, udalean bertan lan egiteko bete beharko lituzketen baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza eskakizunei dagokienean.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabiliko dira normalean: behar duen hizkuntza gaitasuna ziurtatzen duen agiria edota udaleko Euskara zerbitzuak jarritako euskara froga gainditzea. Azken aukera hau ahalik eta gutxienetan erabiliko da, gaur egun hizkuntza agiriak izateko aukera ugari baitago.

Berariaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Edozein dela kasua ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake euskara aukeratzeko eskubidea.

Administrazio kontratu-egilearekin kontratua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskara hutsean egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne.
Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena,gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren,Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz

13. klausula. Prezioak berrikustea.
Prezioak berrikusterakoan, plegu honen **I. eranskineko 6. idatz-zatian** zehaztutakoari men egingo zaio, SPKLaren 103. artikulua eta APKLEOaren 140tik 106ra bitarteko artikuluak betez.

Behin-behineko prezioak dituzten kontratuetan ez dira prezioak berrikusiko, SPKLaren 102.7 artikuluan ezarritakoa betez.

IV. KAPITULUA. Lizitatzailea.

14. klausula. Kontratatzeko egokitasuna.

Kontratu honen adjudikazioan Espainiako edo atzerriko pertsona naturalek edo juridikoek parte har dezakete, beren izenean edo aldi baterako enpresa-elkartean, baldin eta jarduteko ahalmen osoa, kontratatzeko debekurik eza eta egiaztatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa badituzte, plegu honen **I. eranskineko 11. idatz-zatian** xedatutakoa betez.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, haien osaera aldatzeko eta lizitazioan zehar eman aldaketak egiteko, 69. artikuluaren 8 atalean eta hurrengoetan ezarritakoari men egin beharko zaio.

Zehazki, ezin izango dute Administrazio Publikoarekin kontratatu, ezta lizitazioan parte hartu ere, honako pertsona fisiko zein juridiko hauek: gizarte arloan izaera irmoko zigorra jaso dutenak oso arau-hauste larri batengatik, Gizarte-Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, hain zuzen ere, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42.1. artikuluan tipifikatutakoaren arabera: zigorra ezarri zaie, 50 langile edo gehiago enplegatzen dituen enpresa izanik, langileen arteko 100eko 2 gutxienez ez direlako desgaitasunen bat duten langileak, eta ez dituztelako erregelamenduz ezarritako neurri alternatiboak aplikatu (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena).

Era berean, ezingo dute Administrazio Publikoarekin kontratatu, ezta lizitazioan parte hartu ere, honako pertsona fisiko zein juridiko hauek: lan-harreman indibidual eta kolektiboen alorrean, izaera irmoko zigorra jaso dutenak oso arau-hauste larri batengatik, Lan-Ordenako Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 7. artikuluaren arabera, hain zuzen ere, arrazoi izanik bere 8. artikuluko 13. atalean agertzen dena: sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean.

Halaber, ezin izango dute Administrazioarekin kontratatu, ezta lizitazioetan parte hartu ere, honako pertsona fisiko zein juridiko hauek: ingurumen arloan, izaera irmoko zigorra jaso dutenak oso arau-hauste larri batengatik, honako legeriaren arabera: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 22/1998 Legea, uztailaren 28koa, itsaertzei buruzkoa; 4/1989 Legea, martxoaren 27koa, Espazio Naturalak eta basa-landaredia eta fauna zaintzeari buruzkoa; 11/1997 Legea, apirilaren 24koa, Bilgarri eta bilgarrien hondakinei buruzkoa; 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, hondakinei buruzkoa; Uren inguruko Testu bategina, 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak, uztailaren 20koak, onartua; eta 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa.

Sozietate kontratistak enpresen fusioan parte hartzen duenean, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo fusiotik sortutako erakundearekin, eta handik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak subrogatuko zaizkio. Halaber, enpresak edo haien jarduera-adarrak zatitu, eman edo eskuordetzen badira, kontratua esleituta duen erakundeak kontratua indarrean mantenduko du, eta kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak subrogatuko zaizkio, baldin eta adjudikazioa adostean beharrezkoak diren kaudimena, kontratatzeko debekurik eza eta gaitasunak betetzen baditu, edo aipaturiko eragiketen sozietate onuradunek, eta, irautekotan,

ondarearen, enpresen edo bereizitako adarren jatorriko sozietateak kontratuaren egikaritzetik eratorritako eskubideak eta betebeharrak beren gain hartzen badituzte solidarioki. Kontratua esleitzen zaion erakundeak subrogaziorako beharrezkoak diren kaudimen-baldintzak betetzen ez baditu, kontratua amaituko da, eta, ondorio guztietarako, adjudikaziodunaren errua dela iritziko zaio.

Aurreko ondorioetarako, enpresak egoera horren berri eman beharko dio kontratazio-organoari.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izan ahal izateko, prestazioak haien helburu, xede edo jarduera-eremuan jasota egon behar dira, haien estatutuen edo sortze-arauen arabera.

Kontratistek, hala badagokio, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa emateko gaikuntza enpresariala edo profesionala eduki beharko dute, plegu honen **I. eranskineko 13. idatz-zatian** ezarritakoarekin bat etorriz.
Europar Batasuneko enpresen edo Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten estatuen eta Europar Batasunetik kanpo dauden enpresen kasuan, SPKLaren 67. eta 68. artikuluak aplikatuko dira.

15. klausula. Kaudimena.

SPKLaren 74. artikulua betez, sektore publikoko kontratuak egiteko, enpresariek egiaztatu behar dute gutxieneko baldintzak betetzen dituztela kontratazio-organoak zehaztutako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional edo teknikoari dagokionez.

I. eranskineko 11. idatz-zatian ezartzen dira kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa.

Horrenbestez, enpresariak kaudimena duela egiazta dezake, kontratuari dagozkion sailkapeneko kategoriaren eta sailkapeneko taldearen edo azpitaldearen sailkapenaren bidez zein **I. eranskineko 11. idatz-zatian** zehazten diren kaudimen-baldintza espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz.

Halaber, SPKLaren 92. artikuluak ezartzen du aurretiaz zehaztutako diru-atalasea gainditzen ez duten kontratuen kasuan ez dela beharrezkoa izango kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa edo kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzea. Gehienez 35.000 euroko balio zenbatetsia duten zerbitzuetako kontratuen kasuan, pleguaren **I. eranskineko 11. idatz-zatian** espresuki adieraziko da kaudimena egiaztatzeko baldintzak bete behar diren ala ez, abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak aldatutako HAKLAOren 11. artikuluan xedatutakoarekin adostasunean.

16. klausula. Kaudimena kanpo-baliabideekin frogatzea.

Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabil ditzake kontratu zehatz bat gauzatzeko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, haiekin duen lotura juridikoa edozein motakoa dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratuaren egikaritze osoan zehar kaudimen eta baliabide horiek benetan eskura izango dituela eta erakunde hark kontratatzeko debekurik ez duela.

Baldintza berdinetan, lehiaketan parte hartzeko SPKLaren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako enpresa-elkarteak eratzen dituzten enpresariek enpresa-elkarte horiez kanpoko gaitasunez baliatzeko aukera dute.

Horrenbestez, lizitatzaileek **I. eranskineko 11. idatz-zatian** aipatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionaleko baldintza espezifikoak egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideak har ditzake oinarritzat.

SPKLaren 75.1 artikuluaren arabera, dagokion lan-esperientziari buruzko irizpideei dagokienez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunez baliatu ahal izango dute, baldin eta enpresa horiek jartze- edo instalatze-lanak egin behar badituzte hornidura-kontratuaren baitan, eta horretarako beharrezkoak badira gaitasun horiek.

Hornidura kontratu baten baitan, jartze- edo instalatze-zerbitzurik edo lanik badago, SPKLaren 75.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, botere adjudikatzaileek lizitatzaileari eska diezaiokete zati edo lan zehatz batzuk lizitatzaileak berak egin ditzala, izaera berezikoak izateagatik, edo, enpresa-elkarteak aurkeztutako eskaintza batean kasuan, haren partaideetako batek egin ditzala eska diezaiokete, baldin eta pleguan horrela aurreikusita badago. Aukera hori **I. eranskineko 23. idatz-zatian** arautzen da.

17. klausula. Kaudimen-baldintzak zehaztea.

Jartze- edo instalatze-zerbitzuak edo lanak dituen hornidura kontratuetan, pertsona juridikoei prestazioa emateko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza zehazteko eska dakieke, SPKLaren 76.1 artikuluarekin bat etorriz.

Halaber, SPKLaren 76. artikuluaren 2. atala betez, kontratazio-organoek lizitatzaileei eska diezaieke haien kaudimena —edo, hala badagokio, sailkapena— egiaztatzeaz gainera, kontratuaren egikaritzeari beharrezko giza baliabideak edo baliabide materialak emateko edo esleitzeko konpromisoa har dezatela. Konpromiso horiek funtsezko kontratu-betebeharrak dira 211. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako, baita adjudikaziodunak betebehar horiek betetzen ez dituenean zehapenak ezartzeko ere, 192.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Plegu honen I. eranskineko 12. idatz-zatian adierazten da kontratua egikaritzeko ardura duten langileen izenak eta prestakuntza jasota uzteko eta kontratuaren egikaritzeari giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa, hala badagokio.

V. KAPITULUA. Adjudikaziorako prozedura.

Lehenengo atala. Adjudikaziorako prozedura eta irizpideak.

18. klausula. Prozedura.

SPKLaren 159. artikuluan jasotakoa betez, kontratua prozedura ireki sinplifilatuaren bidez adjudikatuko da, eta adjudikaziorako irizpide bakarrari edo adjudikaziorako irizpide anitzei erantzunez gauzatuko da, plegu honen **I. eranskineko 10. idatz-zatian** jasotakoa eta lege-testu horretan ezarritako baldintzak eta eskakizunak betez, SPKLaren 145. eta 146. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

19. klausula. Publizitatea.

Herri Administrazioen kontratuen adjudikaziorako lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Plegu honen **I. eranskineko 33. idatz-zatian** agertzen den Tolosako Udalaren kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, eta, hala badagokio, administrazio-baldintza berezien plegua eta dokumentazio osagarria jasota utziko dira.

Plegu honen **I. eranskineko 4. idatz-zatian** jasotakoaren arabera, arauketa bateratuaren mende dauden kontratuen lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLaren 135. artikulua betez.

Lizitazio-prozeduran parte hartu nahi dutenek pleguei eta gainontzeko dokumentu osagarriei buruzko informazio gehiago eska dezakete plegu honen **I. eranskineko 32. idatz-zatian** adierazitako aurrerapenarekin.

20. klausula. Adjudikaziorako irizpideak.

Plegu honen **I. eranskineko 10. eta 18. idatz-zatietan adierazten dira** adjudikaziorako zer irizpide hartuko diren oinarritzat, bakoitzari bere haztapena egotzita, eta, behar bezala justifikatutako arrazoi objektiboak medio, aukeratutako irizpideak ezin badira haztatu, irizpide horiek zerrendatuko dira garrantzi handienetik txikienera.

Adjudikaziorako irizpide bakarra adierazten bada, kostuekin zerikusia eduki beharko du, eta prezioan edo errentagarritasunean oinarritutako irizpide bat izan daiteke; adibidez, bizitza-zikloaren kostua, 148. artikuluan jasotakoaren arabera kalkulatuta.
Adjudikaziorako prozedurak hainbat fase dituenean, adieraziko da horietako zeinetan aplikatzen diren bestelako irizpideak; bestalde, prozesuarekin aurrera egin ahal izateko, irizpide kualitatiboetan puntuazioaren %50 lortu beharko da gutxienez, eta horrela adieraziko da **I. eranskineko 18. idatz-zatian**.

Kasu horietan, proposamenak ezartzen diren balorazio-fase adina gutun-azal jasoko ditu.

Adjudikazioaren xede diren irizpideen artean, **I. eranskinaren 19. idatz-zatian** adierazten dira, SPKLaren 149.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, anormaltzat hartzen diren eskaintzak antzemateko parametro objektiboak.

Bigarren atala. Bermeak

21. klausula. Behin betiko bermea

145. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eman beharko dio kontratazio-organoari[1]. Behin betiko bermea lizitatzaileak eskainitako prezioaren % 5 izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga — edo, hala badagokio, lizitazioaren oinarri-aurrekontuaren zerga— kanpo, plegui honen **I. eranskineko 14. idatz-zatian** aurreikusitakoaren arabera. Behin betiko bermea hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLaren 150.2 artikuluan aipatzen den errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuak estaliko ditu. Kontzeptu horien barruan dago kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak gaizki egikaritzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra haustea (SPKLaren 196. artikuluak aurreikusten duena).

Behin betiko bermea SPKLaren I. liburuaren IV. tituluaren I. kapituluan araututakoaren arabera eratuko da, SPKLaren 108.1 artikuluan ezarritako edozein eratan, agiri honen **III. eta IV. eranskinetan** ezartzen diren ereduetara egokituz. Udaleko Diruzaintzan ordaindu beharko da.

Abalaren edo kauzio-aseguruaren ziurtagiriaren testuan ahalordea askiesten dela aipatzeari dagokionez (agiri honen **III. eta IV. eranskinak**), Tolosako Udaleko idazkariak aurretiaz egingo du askiespen hori, baldin eta ahalordea abal-emaileak edo aseguratzaileak eman badu lizitatzailea prozedura zehatz honetan bermatzeko.

SPKLaren 108.2 artikuluak aurreikusten duen bezala eta agiri honen **I. eranskineko 14. idatz-zatian** jasotakoa betez, bermea preziotik atxiki behar denean, lizitatzaileak aurretiaz berariazko adierazi beharko du hori, eta lehenengo ordainketan atxikiko zaio.

Kontratua aldatzean prezioa ere aldatzen bada, enpresariari aldaketa horren berri eman eta 15 egun naturaleko epean, bermea egokituko du, kontratu berriaren prezioarekiko proportzio egokia manten dezan; hala egin ezean, kontratua amaitzeko arrazoitzat hartuko da. Zehapenak edo kalte-ordainak eraginkor egiten direnetik 15 egun naturaleko epean ere, adjudikaziodunak bermea dagokion zenbatekoarekin lehenengo edo handitu beharko du; hala egin ezean, kontratua amaitzeko arrazoitzat hartuko da. Ondorio horietarako, I. liburuaren III. tituluaren II. kapituluan jasotakoa betez, ez dira aintzat hartuko prezioa berrikustearen ondorioz ematen diren prezio-aldaketak.

Berme osagarria SPKLaren 107.2 artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, agiri honen **I. eranskineko 15. idatz-zatian** jasotakoaren arabera.

22. klausula. Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea.

Behin kontratuaren kitapena onartuta, behin betiko bermearen bidez gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago eta plegu honen **I. eranskineko 30. idatz-zatian** zehazten den bermealdia amaitu bada, bermea itzultzea erabakiko da.

Kontratua amaitu denetik urtebete igarota eta bermealdia amaituta, edo kontratua 100.000 eurotik beherakoa denean, sei hilabete igarota, edo enpresa lizitatzaileek enpresa txikia edo ertaina izateko baldintzak betetzen badituzte —Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, zenbait laguntza-kategoria merkatu komunarekin bateragarriak direla jotzen duena Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluei jarraikiz— eta baldintza horiek betetzen ez dituen beste enpresa batek zuzenean edo zeharka kontrolatzen ez baditu, bermea itzuli edo kitatu egingo da, SPKLaren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren eta HAKLAOren 65.3 artikuluan jasotako alde batera utzita, salbu eta prestazioa jasotzeko ekitaldi formala eta kitapena kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik burutu ez badira.

Baldin eta prestazioa zatika jasotzea ezarri bada, plegu honen **I. eranskineko 8. idatz-zatian** bermea partzialki kitatzeari buruz jasotakoari men egingo zaio.

II. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA.

I. KAPITULUA. Proposamenak.

23. klausula. Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak kontratazio-organoari zuzenduko zaizkio, eta lizitazio-iragarkian adierazten den tokian eta epean aurkez daitezke soilik.

Espedientea premiaz izapidetzeak ez du eskaintzak aurkezteko epea inolaz ere murriztuko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean proposamenik egin, aurretiaz bere izenean egin badu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, hark sinatutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

Proposamenak aurkeztean, enpresariak kontratua arautzen duten pleguetan aurreikusitako klausulak edo baldintzak osorik eta mugarik gabe onartzen dituela iritziko zaio, inolako eragozpenik eta salbuespenik gabe.

Aldagaiei dagokionez, plegu honen **I. eranskineko 20. idatz-zatian** jasotakoa bete beharko da.

24. klausula. Lizitatzailearen dokumentu eta datu konfidentzialak.

Lizitatzaileek adierazi behar dute zein diren eskaintzan jasotako dokumentu (edo dokumentu zati) edo datu konfidentzialak, eta ez da onartuko eskaintzaren dokumentu edo datu guztiak konfidentzialak direla oro har adieraztea. Konfidentzialtasun hori argi eta garbi islatu behar da dokumentuan bertan (gaininpresioa, albo batean edo erraz identifika daitekeen eran), eta arrazoiak justifikatu egin beharko dira. Iritziko zaio lizitatzaileek espresuki konfidentzialtzat hartzen ez dituzten dokumentuak ez direla konfidentzialak.

25. klausula. Proposamenen forma eta edukia.

Proposamenek jaso behar dituzte plegu honetako I. eranskineko 17. idatz-zatian adierazitako gutun-azalak.

Gutun-azalak itxita eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta aurkeztu behar dira, eta bakoitzaren kanpoaldean, lizitazio-kontratuaren erreferentzia zenbakia eta izendapena, lizitatzailearen izen-abizenak edo enpresaren izen soziala eta IFK adierazi beharko dira. Gutun-azal bakoitzak barnean dituen, agirien zenbakidun zerrenda jasoko du.

26. klausula. Dokumentuak zuzentzea.

Lizitatzaileek, kontratazio-organoak edo -mahaiak hala eskatuz gero, parte hartzeko baldintzak betetzen dituztenaren erantzukizunpeko adierazpenak zuzendu egin behar dituzte, baldin eta aurkeztu ez badituzte edo aurkeztutakoa ondo beteta ez badago. Halaber, adjudikaziodunak zuzendu ahal izango ditu kontratua adjudikatu aurretik eskatu zaizkion egiaztagiriak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko, baldin eta horiek falta badira edo osatu gabe badaude. Bi kasuetan, lizitatzaileak hiru egun edukiko ditu, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe horretan zuzenduko ez balitz, kontratazio-organoak, edo, hala badagokio, kontratazio-mahaiak, lizitatzaileak eskaera atzera bota duela iritziko dio.

27. klausula. Proposamenen edukia.

Lizitatzaileen proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak honela banatuko dira:

I. MODALITATEA
Eskaintza gutun-azal bakarrean aurkeztuko da, prozeduran balio-iritzi batekin kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpideak ezartzen ez direnean:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA ZIFREN EDO EHUNEKOEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZAK JASOTZEN DITUEN GUTUN AZALA.

Lizitatzaileek honako hauek sartu behar dituzte gutun-azal horretan:

1.- Erantzukizunpeko adierazpena eta zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideen eskaintza.

Erantzukizunpeko adierazpena eta zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideen eskaintza plegu honen **II. eranskinean** ezarritako ereduari jarraikiz idatzi beharko da, eta administrazioaren ustez eskaintza bat balioesteko funtsezkoa dena ezagutzea eragozten duten ez-betetzeak, akatsak edo marratzeak dituzten irizpideak baztertuko dira. Kontratazio-mahaiak proposamenak ebazpen ziodun bidez atzera botako ditu, kasu hauetan: aztertua eta onartua izan den dokumentazioarekin bat ez etortzea, lizitazioaren oinarri-aurrekontua gainditzea, ezarritako eredua nabarmen aldatzea, zenbatekoan ageriko akatsa edukitzea eta lizitatzaileak aitortzea eskaintza bideraezin bihurtzen duten akatsak edo funsgabetasuna dituela. Ez da uko egiteko arrazoi nahikoa izango ereduan hitz batzuk aldatzea edo kentzea, esanahia aldatzen ez bada.

Proposamenean, beste partida batean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) adieraziko da.

Halaber, eta, hala badagokio, kontratista aukeratzeko irizpide anitz hartzen badira aintzat, agiri hauetan ezarritako formulen bidez zifrekin edo ehunekoekin automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa sartuko da.

Adjudikaziorako irizpideei lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoari dagokionez, agiri honen **I. eranskineko 21. idatz-zatian** ezarritakoa bete beharko da.

2.- Aldi baterako enpresari-elkartea.
II. eranskineko ereduari jarraikiz, erantzukizunpeko adierazpen bakarra eta zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideen eskaintza aurkeztu beharko dira, ABEE eratzen duten erakunde guztiek sinatuta.

Halaber, enpresariek aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko **konpromisoa** aurkeztu beharko dute, SPKLren 69. artikuluaren 3. idatz-zatian eskatutakoari jarraikiz, eta enpresa-elkarte horrek gutxienez kontratuaren epemugara arte iraun beharko du.

Konpromisoaren idatzian jasota geratuko dira: enpresa-elkartea eratuko duten kideen izenak eta egoera, kide bakoitzaren partaidetza eta aldi baterako enpresa-elkartea formalizatzeko

konpromisoa, kontratuaren adjudikaziodunak izanez gero. Enpresa-elkartea eratzen duten enpresetako ordezkari guztiek sinatu beharko dute dokumentu hori.

3.- Lotutako enpresak.
Talde bereko enpresen kasuan, horrelakotzat hartuta Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren ustezkoetako batean daudenak eta adjudikazioan modu independentean lehiatzeko proposamen ezberdinak aurkezten dituztenak, egoera hori jasota uzten duen adierazpena aurkeztu beharko dute.
Proposamen ezberdinak aurkezten dituzten eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean lehiatzen diren sozietateek ere berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute elkartea eratzen duten bazkideei dagokienez.

II. MODALITATEA
Eskaintza bi gutun-azaletan aurkeztuko da, prozeduran balio-iritzi batekin kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpideak ezartzen direnean:

A) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA ZIFREN EDO EHUNEKOEN BIDEZ BALORA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZAK JASOTZEN DITUEN GUTUN AZALA.

Lizitatzaileek honako hauek sartu behar dituzte gutun-azal horretan:
1.- Erantzukizunpenko adierazpena, agiri honen **VI. eranskinean** ezarritako ereduaren arabera eginikoa.

2.- Aldi baterako enpresari-elkartea.
Hainbat enpresarik lehiaketan parte hartzeko aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, agiri honen **VI. eranskinean** ezarritako ereduari jarraikiz.

Halaber, enpresariek aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko **konpromisoa** aurkeztu beharko dute, SPKLren 69. artikuluaren 3. idatz-zatian eskatutakoari jarraikiz, eta enpresa-elkarte horrek gutxienez kontratuaren epemugara arte iraun beharko du.

Konpromisoaren idatzian jasota geratuko dira: enpresa-elkartea eratuko duten kideen izenak eta egoera, kide bakoitzaren partaidetza eta aldi baterako enpresa-elkartea formalizatzeko konpromisoa, kontratuaren adjudikaziodunak izanez gero. Enpresa-elkartea eratzen duten enpresetako ordezkari guztiek sinatu beharko dute dokumentu hori.

3.- Lotutako enpresak.
Talde bereko enpresen kasuan, horrelakotzat hartuta Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren ustezkoetako batean daudenak eta adjudikazioan modu independentean lehiatzeko proposamen ezberdinak aurkezten dituztenak, egoera hori jasota uzten duen adierazpena aurkeztu beharko dute.
Proposamen ezberdinak aurkezten dituzten eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean lehiatzen diren sozietateek ere berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute elkartea eratzen duten bazkideei dagokienez.

4.-Zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.
Balio-iritzi batekin haztatu beharreko irizpideak dituzten dokumentuak ere jasoko dira.

B) ZIFREN EDO EHUNEKOEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA JASOTZEN DUEN GUTUN AZALA.

"Zifren edo ehunekoen arabera balora daitezkeen irizpideen eskaintza" gutun-azalean, agiri honen **VII. eranskinean** zehaztutako ereduari jarraikiz idatzitako proposamen ekonomikoa sartuko da, eta administrazioaren ustez eskaintza bat balioesteko funtsezkoa dena ezagutzea eragozten duten ez-ez-betetzeak, akatsak edo marratzeak dituzten irizpideak baztertuko dira. Kontratazio-mahaiak proposamenak ebazpen ziodun bidez atzera botako ditu, kasu hauetan: aztertua eta onartua izan den dokumentazioarekin bat ez etortzea, lizitazioaren oinarri-aurrekontua gainditzea, ezarritako eredua nabarmen aldatzea, zenbatekoan ageriko akatsa edukitzea eta lizitatzaileak aitortzea eskaintza bideraezin bihurtzen duten akatsak edo funsgabetasuna dituela. Ez da uko egiteko arrazoi nahikoa izango ereduan hitz batzuk aldatzea edo kentzea, esanahia aldatzen ez bada.

Proposamenean, beste partida batean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) adieraziko da.

Halaber, kontratista aukeratzeko irizpide anitz hartzen badira aintzat, agiri hauetan ezarritako formulen bidez zifrekin edo ehunekoekin automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa sartuko da gutun-azal honetan.

Adjudikaziorako irizpideei lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoari dagokionez, agiri honen **I. eranskineko 21. idatz-zatian** ezarritakoa bete beharko da.

28. klausula. Proposamenak aurkeztearen ondorioak.

Proposamenak aurkeztean, enpresariak agiri honen baldintzak salbuespenik gabe onartzen ditu eta administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten du.

29. klausula. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, baloratzea eta proposamenak irekitzea.

Proposamenak dituzten gutun-azalak 145. artikuluan jasotako ordenean irekiko dira, adjudikaziorako irizpideak baloratzeko aplikagarria den metodoaren arabera. Kontratazio-mahaiak irekiko ditu gutun-azalak.

Kontratazio-mahaiaren jarduera lizitatzaileak eskaintza egiteko aurkeztu behar dituen gutun-azalen araberakoa izango da. Lizitzaileak gutun-azal bakarra aurkeztuko du, prozeduran balio-iritziarekin kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpideak ezartzen ez direnean, eta, aldiz, bi gutun-azal, irizpide horiek ezartzen direnean. Aurrekoa aintzat hartuta, kontratazio-mahaiak honela jardungo du:

I. MODALITATEA

Lizitatzaileak **gutun-azal bakarra** aurkeztu behar duenean, prozeduran ez direlako balio-iritziekin kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpideak ezartzen, kontratazio-mahaiak proposamena ireki eta irakurri egingo du ekitaldi publikoan.

Ekitaldi publikoaren amaieran, saio horretan bertan, kontratazio-mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako adierazpena kalifikatuko du.

Ahal bada, saio berdinean ere, eta, hala badagokio, agiriaren eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak kanpo ondoren, kontratazio-mahaiak eskaintzak ebaluatu eta sailkatu egingo ditu.

Anormaltzat hartzen den eskaintzarik identifikatuz gero, kontratazio-mahaiak 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, eta lizitatzaileei beren eskaintza justifikatzeko 5 egun balioduneko epea emango zaie gehienez ere, jakinarazpen-datatik zenbatzen hasita.

Gainera, bi eskaintzen edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, berdinketa hausteko erregimena aplikatu behar da, agiri honen **35. klausulan** zehaztutakoa.

Gero, kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen hautagaiari adjudikatzeko proposamena egingo du. Adjudikaziodun izateko proposatu den lizitatzaileari dagokionez, kontratazio-mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko gaitasun nahikoa, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo, hala badagokio, dagokion sailkapena dituela, eta kontratatzeko debekurik ez duela.

Halaber, kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari adjudikaziorako behar den dokumentazioa, eta, hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan jasota ez dagoen bestelako dokumentazioa eskatuko dio, agiri honen **27. klausulan** ezarritako baldintzetan.

II. MODALITATEA

Lizitatzaileak **bi gutun-azal** aurkeztu behar dituenean balio-iritzi batekin kuantifikatu behar diren adjudikaziorako irizpideak daudelako, kontratazio-mahaiak zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideen eskaintza eta adierazpena jasotzen dituen gutun-azala irekiko du ekitaldi publikoan. Balio-iritzi batekin kuantifikatu behar diren adjudikazio-irizpideei buruzko gutun-azalean jasotzen den dokumentazioa kontratazio-organoaren zerbitzu teknikoei bidaliko zaie, txostena egin dezaten.

Ekitaldi publikoaren amaieran, saio horretan bertan, kontratazio-mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako adierazpena kalifikatuko du.

Kontratazio-organoak formulak aplikatuz kuantifikatuko diren irizpideak irekitzeko eta irakurtzeko ekitaldi publikoa zer egunetan egingo den argitaratuko du beharrezko aurrerapenarekin, agiriaren **I. eranskinaren 33. idatz-zatian** agertzen den kontratatzailearen profilean.

Kontratazio-mahaiak ekitaldi publiko berri horretan jakinaraziko du zer proposamen onartu eta baztertu diren, eta azken kasu horretan, proposamenak baztertzearen arrazoiak azalduko ditu. Halaber, ezagutzera emango da balio-iritziarekin kuantifikatu behar diren adjudikazio-irizpideek zer balorazio izan duten, eta, azkenik, formulak aplikatuz kuantifikatu beharreko irizpideak ireki eta irakurriko dira.

Ahal bada, ekitaldi publikoan eta saio berdinean ere, eta, hala badagokio, agiriaren eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak kanpo ondoren, kontratazio-mahaiak eskaintzak ebaluatu eta sailkatu egingo ditu.

Anormaltzat hartzen den eskaintzarik identifikatuz gero, kontratazio-mahaiak 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, eta lizitatzaileei beren eskaintza justifikatzeko 5 egun balioduneko epea emango zaie gehienez ere, jakinarazpen-datatik zenbatzen hasita.

Gainera, bi eskaintzen edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, berdinketa hausteko erregimena aplikatu behar da, agiri honen **33. klausulan** zehaztutakoa.

Gero, kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen hautagaiari adjudikatzeko proposamena egingo du. Adjudikaziodun izateko proposatu den lizitatzaileari dagokionez, kontratazio-mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko gaitasun nahikoa, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo, hala badagokio, dagokion sailkapena dituela, eta kontratatzeko debekurik ez duela.

Halaber, kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari adjudikaziorako behar den dokumentazioa, eta, hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan jasota ez dagoen bestelako dokumentazioa eskatuko dio, agiri honen 27. klausulan ezarritako baldintzetan.

Behin kontratuaren adjudikazioa jakinarazita, helegiteak aurkezteko epea igarota helegiterik egon ez bada, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Interesdunek adjudikazioaren berri jasotzen eta hurrengo hiru hilabeteetan beren dokumentazioa hartzen ez badute, administrazioak ez du gordetzen jarraitzeko obligaziorik izango.

30. klausula. Erantzukizunpeko adierazpenaren egiazkotasuna egiaztatzea.

Kontratazio-organoaren edo kontratazio-mahaiaren zerbitzuek lizitatzaileei edozein unetan eska diezaiekete dokumentuen bidez justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu dituzten baldintzak. Lizitatzaileak gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du errekeritutako dokumentazioa, errekerimendua bidaltzen denetik. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza atzera bota duela iritziko zaio, eta prozeduratik kanpo geratuko da.

31. klausula. Ohikoa baino eskaintza baxuagoa.

I. eranskinaren 19. idatz-zatian jasotzen dira parametro objektiboak erabaki ahal izateko proposamena ezin dela bete, ohikoa baino txikiagoa delako.

Proposamena ezin betekotzat joko da baldin eta, balio ohiz kanpokoak edo neurrigabekoak sartuta, frogatzen bada ohikoa baino baxuagoa dela betetzen ez dituelako ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetan bete beharreko obligazioak, zeinak ezarrita baitaude Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, lan-hitzarmen kolektiboetan eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, 2014ko otsailaren 26an, emandako 2014/24/EB zuzentarauko X. Eranskinean ezarritako nazioarteko zuzenbidean eta ingurumen-, gizarte- eta lan-zuzenbidean.

Halaber, proposamena ezin betekotzat joko da baldin eta, balio ohiz kanpokoak edo neurrigabekoak sartuta, baxuagoa bada lan-hitzarmen aplikagarriaren lan-kostua baino, plegu honetan ezarritakoaren arabera.

II. KAPITULUA Adjudikaziorako proposamena, adjudikatzea eta hobetzea eta formalizatzea.

32. klausula. Adjudikazio-proposamenaren ondorioak. Administrazioak adjudikazio-prozedura bertan behera uztea eta kontratua ez gauzatzeko edo ez adjudikatzeko erabakia hartzea.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez dio proposatu den lizitatzaileari inolako eskubiderik ematen, eta administrazioaren aurrean ez du eskubiderik izango ere, kontratua formalizatzen ez den arte.

SPKLaren 152. artikuluan jasotakoa betez, kontratazio-organoak prozedura bertan behera uztea edo kontratua ez adjudikatzea edo ez gauzatzea erabaki dezake, formalizatu aurretik.

Interes publikoko arrazoiengatik soilik erabaki daiteke kontratua ez adjudikatzea edo ez gauzatzea, eta hori behar bezala justifikatu beharko da espedientean. Prozedura bertan behera utz daiteke soilik, kontratuaren prestatzeko arauetan edo adjudikazio-prozeduraren erregulatzen duten arauetan arau-hauste konponezin bat dagoenean eta espedientean justifikatu beharko da.

33. klausula. Kontratua adjudikatzea.

Plegu honen I. eranskineko 2. idatz-zatian adierazten den kontratazio-organoari dagokio kontratu adjudikatzea.

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari adjudikatuko dio kontratua, SPKLaren 145. artikulua betez. Aintzat hartuko den irizpide bakarra prezioa denean, iritziko zaio eskaintzarik onena preziorik txikienekoa dela; dena dela, arrazoizkoa baino eskaintza txikiagoak zehazteko irizpideak ezarri ahal izango dira. Adjudikaziorako irizpide anitz erabiltzen direnean, kalitate-prezio erlazio onena hartuko da oinarritzat.

Adjudikazioa ebazpen ziodunaren bidez ebatziko da gehienez ere bi hilabeteko epean, proposamena aurkezten denetik hasita, baldin eta kontratu adjudikaziorako irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen bada, edo irizpide bat erabiliz gero bizi-zikloaren gutxiengo kostua denean, eta gehienez ere hamabost eguneko epean, proposamena aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita, adjudikaziodunaren aukeraketarako irizpide bakarra prezioa denean. Epe hori hamabost baliodun egunetan luzatuko da, arrazoizkoa baino eskaintza txikiagoei buruzko SPKLren 149. artikuluko 4. idatz-zatian zehaztutako izapideak jarraitzea beharrezkoa denean.

Lizitatzaileei adjudikazioari buruz jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen perfilean publikatu beharko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpen elektronikoa erabiliko da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

Kontratazio-organoak lizitazioa esleitu gabea izenda dezake, dagokion kasuan, kontratazio mahaiak eskatuta, baldin eta ez dagoen pleguan zehaztutako irizpideak betetzen dituen eskaintza edo proposamenik.

Behin kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartuta, dagokien zerbitzuek eskaintza onenak aurkeztutako lizitatzaileei hamar eguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita, ondorengo justifikatzeko agiriak aurkezteko eskatuko die: SPKLren 76.2 artikuluari jarraiki kontratua egikaritzeko esleitu edo eskaini behar dituen baliabideak badituela justifikatzeko

egiaztagiriak; dagokion behin-betiko bermea eratu duen agiria, eta dagokion kasuan, plegu honetako **I. eranskineko 16. idatz-zatian** zehaztutako polizetan harpidetuta egotearen agiria.

Zehaztutako epean eskakizuna modu egokian bidaltzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da, eta lizitazioaren aurrekontu oinarriaren %3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor moduan, lehenik behin-behineko bermearen aurka, eratu izan balitz, SPKLren 72. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran zehaztutakoa kaltetu gabe, kontraturako debekuei buruzkoa.

Aurreko paragrafoan zehaztutako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio ondorengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenaren segida jarraiki.

Era berean, kontratazio-mahaiak eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresariari eta adjudikaziodun izateko proposatu den ABEEko enpresa kideei dokumentu hauek aurkezteko eskatuko die, 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa denean, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatu dagoen osaera-eskritura edo -agiria, jarduera erregulatzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuak edo sortze-egintza eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).

1.2.- Banakako enpresaria denean, NAN dokumentua edo arauz horren parekoa dena.

1.3.- Europar Batasuneko estatu kideen edo Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Itunaren kide diren estatuetako enpresa ez-espainiarren jarduteko gaitasuna dagokion erregistroko inskripzioarekin egiaztatuko da, egoitza duten estatuko legedia betez, edo bestela, zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria aurkeztuta, Europar Batasuneko xedapen aplikagarriekin bat etorriz.

1.4.- Aurreko paragrafoan jasota ez dauden atzerriko enpresen kasuan, dagokion estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-eremuko bulego kontsularraren txostena, enpresak egiaztatu ostean.

1.5.- Nazioarteko hitzarmenen ondorioz Espainiak eduki ditzakeen betebeharrez aparte, Europar Batasunetik edo Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Ituneko estatu kideetatik kanpo dauden pertsona fisikoek edo juridikoek txosten batekin egiaztatu behar dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak ontzat ematen duela enpresa espainiarrek SPKLaren 3. artikuluan zerrendatutakoen parekoak diren sektore publikoko erakundeekin kontrata dezatela, pare-parekoa den modu batean. Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du txostena, eta aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsiko zaio.

Arauketa harmonizatuaren pean dauden kontratuen kasuan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Ituna izenpetu duten estatuetako enpresek ez dute elkarrekikotasun-txostena aurkeztu beharko.

1.6.- Atzerriko enpresek dokumentazioa gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztuko dute.

2.- Ahalordea askiestea.

Beste baten izenean parte hartzen edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek ahalorde horiek egiaztatzeko eskriturak edo egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, Tolosako Udalak behar bezala askietsita. Askiespen hori lortu ahal izateko, Udalari dokumentu hauek eman behar zaizkio:

- Ordezkariaren jatorrizko NANa.
- Pertsona juridikoak lizitazio publikoetan parte hartzeko gaitasuna eta erakundeko ordezkariaren lizitazio publikoetan parte hartzeko ahalmenak kreditatzeko dokumentuak.
- Lizitaziorako bereziki emandako ahalorde bereziak ez badira, sozietateen kasuan, ahalorde horiek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

3.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.
Lizitatzaileek beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatu dezakete plegu **honen I. eranskineko 11. idatz-zatian** jasotako baldintzetan eta bitartekoekin.

Europar Batasuneko estatu kideen edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituneko kide diren estatuetako enpresa ez-espainiarrek kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala dutela kreditatzeko dokumentuak aurkeztu behar dituzte, SPKLaren 87. eta 90. artikuluetan adierazitako eran eta plegu honen **I. eranskineko 11. idatz-zatian** kontratazio-organoak aurreikusten dituen bitartekoekin.

35.000 euroko balio zenbatetsia edo gutxiagoko balioa duten hornidura-kontratuak.
I. eranskinaren 11. idatz-zatian kontrakorik adierazi ezean, gehienez 35.000 euroko balio zenbatetsia duten zerbitzuetako kontratuen kasuan, lizitatzaileek ez dituzte kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala egiaztatu beharko.

4.- Enpresa-gaikuntza.
Lizitatzaileak plegu honen **I. eranskineko 13. idatz-zatian** jasotakoa betez enpresa-gaikuntza egiaztatu behar duenean, horretarako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

5.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.
Atzerriko enpresek Espainiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioari men egiten diotela ziurtatzeko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen intzidentzia guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egingo diotela adieraziko dute.

6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.
Zerga-betebeharrak:

a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren barruan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda egotearen plegu originala edo fotokopia konpultsatua, baldin eta zerga horri lotutako jarduerak burutzen baditu uneko ekitaldiari dagokion proposamena aurkezten duen egunean, edo azkeneko ordainagiria, zerga horretan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin.

Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, salbuespen horren arrazoia adieraziz. Toki Ogasunen Lege Arautzailearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretu Legegilearen b), e) eta f) ataletako 82.1 artikuluan ezarritako salbuespenetako batean egonez gero, salbuespen hori eman izanaren ebazpen espresa ere aurkeztu beharko dute.
Aldi baterako enpresari-elkarteak, behin formalizatuta, zergan alta eman dutela egiaztatu beharko dute, eta kide diren enpresek dagozkien zergak ordaindu beharko dituzte.

b) Zerga Administrazioak igorritako ziurtagiria, adierazten duena HAKLAOren 13. artikuluan ezarritako baldintzak orokorrean betetzen direla.

Gainera, proposatu den adjudikaziodunak Tolosako Udalari ordainketak egiteko epean ezingo du zergen alorrean zorrik eduki. Toki-administrazioak, ofizioz, Altxortegiko datuen bitartez betebehar hori betetzen dela egiaztatuko du.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak: Gizarte Segurantzako Altxortegiak igorritako ziurtagiria, adierazten duena HAKLAOren 14. artikuluan ezarritako baldintzak orokorrean betetzen direla.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren Hemezortzigarren Xedapen Osagarriarekin bat etorriz, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa, araubide berezian alta emateko betebeharretik salbuetsita dauden eta dagokion elkargo profesionalaren Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatera sartzea erabakitzen duten elkargokideek Mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, haren kide direla egiaztatzeko.

Interesdunak, egiaztagiri hori aurkeztearekin batera, plegu honetan aipatzen diren gainontzeko betebeharrak egiaztatu beharko ditu langileak bere kargu baditu; osterantzean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

7.- Lizitatzaileen Erregistroa.

Enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda badago, edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko datu base nazionalean, enpresaren espediente birtual bat bezala, dokumentuak gordetzeko biltegiratze-sistema elektroniko batean edo prekalifikazio-sistema baten barruan, eta hauek aipatutako organoentzat eskuragarriak badira, ez ditu dokumentu justifikagarriak aurkeztu beharko. Lizitatzailean behar duen gauza bakarra Erregistroan edota datu-basean izena emanda egotearen adierazpena da.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egoteak lizitatzaileak salbuetsiko ditu, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, enpresariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, profesional edo enpresa gisa duten gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa betetzen dituztela egiaztatzeko frogagiriak aurkezteaz. Ez dute erregistroan jasota utzi beharko kontratatzeko debekuren baten pean ez daudela egiaztatzeko frogagiririk ere.

Ez da beharrezkoa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena ematen denean Tolosako Udalak egindako botere askiespena aurkeztea, dagoeneko ordezkaritza izena emanda agertzen bada.

SPKLren 139.1. artikuluaren arabera, proposamenik aurkezteak berarekin dakar Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetako datuak kontsultatzeko baimena ematea Kontratazio Mahaiari edo Organoari.

8.-Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritzen bada, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko du:

Erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du, **pleguaren VII. Eranskinaren** araberakoa, non adierazten duen kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, lizitatzailearen eskura jarriko dituela bere kaudimena eta baliabideak; betiere SPKLren 140.3. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu gabe badago.

Kaudimena egiaztatzen duten enpresek 1, 2, 6 eta hala badagokio, 3, 4, 5 eta 7 idatz-zatietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Kontratazio Mahai edo Organoak dokumentazio justifikagarri guztia edo zati bat eska diezaioke lizitatzaileari, pentsatzen duenean arrazoizko zalantzak daudela aitorpenaren eguneratzean edota fidagarritasunean, prozeduraren garapen egokirako beharrezkoa denean eta beti ere, kontratua esleitu baino lehen.

Kontratazio organoak dokumentazioa entregatu eta hurrengo 5 lanegunetan esleituko du kontratua, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bi lizitatzaile edo gehiagoren arteko guztirako puntuazioko berdinketak desegiteko, SPKLren 147.2 artikuluan aurreikusten diren irizpide sozialak dagokien hurrenkerari jarraikiz aplikatuta desegingo da berdinketa, proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren:

- Zer enpresak duen langile desgaituen edo bazterkeria-egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdinketarik egonez gero, lanpostu finkoa duten langile desgaitu gehien edo gizarteratzeko prozesuan dauden langile gehien dituena aukeratuko da.
- Zer enpresak duen aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- Zer enpresak duen emakume-ehunekorik handiena langileen artean.
- Zer enpresak aurkeztu duen ingurumen-konpromiso ebaluagarri egoki bat, sailkapen-erakunde batek emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatua.

Lizitatzaileek irizpide horiek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agirien eta zuzenbidean onartutako beste edozein egiaztagiriren bidez.

34. klausula. Kontratua burutzea eta formalizatzea.

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua administrazio-agiri batean formalizatuko da, lizitazio-baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den agiri batean. Kontratistak ahal eskatuz gero, eskritura publikoan ere egingo da, eta kasu horretan, gastuak haren kontura izango dira. Horretarako, kontratistak aipatutako agiriaren bi kopia eman beharko dizkio administrazioari (bata legeztatua eta bestea arrunta) hilabeteko epean, kontratua formalizatzen denetik.

Kontratuari jar badioke kontratazioaren alorreko helegite berezirik, formalizazioa ezin izango da egin lizitatzaileei jakinarazi eta ondorengo hamabost lanegun baliodun igaro baino lehen, edo esleipen-egintzaren etendura altxatzeko ebazpena ematen denetik hamabost lanegun baliodun igaro baino lehen. Epe hori igarota, kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek esleipendunari eskatuko diote kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Kontratua hamabost egun balioduneko gehieneko epean formalizatuko da, lizitatzaileek SPKLren 151. artikuluan aurreikusitako moduan adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen dutenetik.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatzen ez bada, lizitazioaren oinarri-aurrekontuaren % 3 (BEZ kanpo) eskatuko zaio zehapen gisa. Bermea jada ordaindu bada, zenbateko hori behin betiko bermearen kargura ordainduko da, SPKLren 71. artikuluaren 2) ataleko b) letran ezarritakoa baztertu gabe.

III. TITULUA KONTRATUA EGIKARITZEA.

I. KAPITULUA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak.

Lehenengo atala. Kontratistari egin beharreko ordainketak.

35. klausula. Kontratuaren prezioa ordaintzea.

SPKLren 301. artikuluak ezarritakoaren arabera, kontratistak eskubidea du Administrazioari benetan emandako eta hark formalki jasotako ondasunen prezioa jasotzeko. Plegu honen **I. eranskineko 7. idatz-zatian** zehaztutako moduan eta maiztasunarekin egingo da ordainketa.

Behar bezala justifikatuko arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik ezarri ahal izango da, SPKLren 302. artikuluak ezarritako baldintzen arabera, hornitu beharreko ondasunen guztizko prezioaren zati bat dirutan ordaintzea eta beste zati bat mota bereko ondasunak emanda, baina azken horien zenbatekoak ezin izango du gainditu guztizko prezioaren % 50. Kontratu honetan, zenbatekoa izango da plegu honetako **I. eranskineko 5. idatz-zatian** adierazitakoa.

Horretarako, SPKLaren hogeita hamabigarren xedapen osagarriaren bigarren atalaren arabera, kontratistak faktura bakoitzean kontabilitate publikoan eskumenak dituen administrazio-organoa, kontratazio-organoa eta hartzailea identifikatu behar ditu, plegu honen **I. eranskineko 2. idatz-zatian** ezarritakoa betez.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako ondasunen kontratuan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatzeko dokumentuak onartzen direnetik kontatua, eta, atzeratuz gero, kontratistari eman beharko dizkio hogeita hamar eguneko epea amaitzen denetik sortutako berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina, merkataritza-eragiketetan abenduaren 29ko 3/2004 Legeak, berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituenak, aurreikusitako baldintzetan.

Interesak sortzeko epea hasteko, kontratistak faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkeztu behar du, faktura elektronikoaren gainean indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzen arabera eta dagokion epearen barruan eta xedatutako moduan, hogeita hamar eguneko epean, salgaiak entregatzen direnetik zenbatzen hasita.

210. artikuluaren 4. idatz-zatian ezarritakoa baztertu gabe, emandako zerbitzuen kontratuak ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko dokumentuak onartu beharko ditu administrazioak, hogeita hamar eguneko epean, ondasunak eman direnetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, kontratistak ez badu faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezten hogeita hamar eguneko epean eta faktura elektronikoaren indarreko araudian ezarritako baldintzen arabera, interesak faktura zuzen aurkeztu eta hogeita hamar eguneko epean hasiko dira sortzen, baldin eta administrazioak, faktura onartu arren, dagokion ordainketa egin ez badu.

Halaber, kontratistak eskubidea du konturako ordainketak jasotzeko, kontratua gauzatzeko prestaketa-lanengatik, baldin eta kontratuaren helburu badira, eta ordainketak berme baten bidez ziurtatuz, SPKLren 198. artikularen arabera.

Kontratu honetarako, prestaketa-lanengatiko konturako ordainketak I. eranskineko 7. idatz-zatian adierazten dira.

Bigarren atala. Kontratistari egin beharreko eskakizunak.

36. klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak.

Kontratua kontratuaren klausulak eta administrazioak kontratistari haren interpretaziorako emandako jarraibideak betez egikarituko da.

Kontratuaren eskritura publikoa eginez gero, kontratistak ordainduko ditu kontratua formalizatzeko gastuak eta zergak, eta hornitu beharreko ondasunak behar bezala egikaritzeko eta entregatzeko dagozkion lizentziak eta baimenak ere bai. Halaber, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu: gastu orokorrak, gastu finantzarioak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, haren kargura dituen langileen ordainsariak, egiaztapenak eta entseguak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa, jarduera burutzeagatiko zergak eta kontratua egikaritzean egon daitezkeen bestelako gastuak.

Ondorio guztietarako, iritziko zaio lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzek eta adjudikaziorako proposamenek barne hartzen dituztela kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten zergak.

Edonola ere, eskaintza ekonomikoan, beste partida batean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) adieraziko da.

Hirugarren atala. Gizarte- eta lan-arloko xedapenak eta gardentasunari buruzko xedapenak

37. klausula. Gizarte-eta lan-arloko eta gardentasunari buruzko betebeharrak.

Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren arloetan indarrean dagoen araudia bete beharko du. Halaber, onartu behar ditu: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta Gizarteratzearen Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa; azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege-Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena, eta kontratuaren egikaritzean aldarrikatzen diren bestelako arauak.

Enpresa kontratistak kontratua egikaritu bitartean aplikaziozko talde-hitzarmenean zehaztutako arauak eta baldintzak bete behar ditu, eta, edonola ere, adjudikaziodunak langileen soldata-baldintzak bete behar ditu, aplikaziozko sektorearen talde-hitzarmena betez.

Plegu honen **V. eranskinean** organismoen zerrenda bat jasotzen da, eta, bertan, lizitatzaileek gai hauen gaineko informazioa jaso dezakete: zerga-sistema; ingurumenaren babesa; lanaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta lan-munduratzearen arloetan indarrean dauden xedapenak, eta kontratua egikaritu bitartean emandako zerbitzuetarako desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra.

Halaber, abenduaren 9ko 9/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoak, ezarritakoa betez, kontratuaren adjudikaziodunak arau honetan aurreikusitako betebeharrak eta udal-eremuan ezarritako gainontzeko arauak betetzeko beharrezko informazio guztia emango dio administrazioari, hark eskatuz gero.

Laugarren atala: Datu pertsonalen babesa eta konfidentzialtasuna

38. klausula. Konfidentzialtasun-betebeharra.

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLaren 133. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Kontratistak kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, agirietan edo kontratuan isilpekoa dela adierazten bada edo duen izaerarengatik konfidentzialtasunez tratatu behar bada. Betebehar hori plegu honen **I. eranskineko 31. idatz-zatian** ezarritako epeaz mantenduko da.

Enpresariek emandako informazioa hedatzea debekatuta dago, haiek konfidentziala dela adierazi badute eta kontratazio-organoak horrela adostu badu. Horretarako, gutun-azal bakoitzean, lizitatzaileek konfidentzialtzat hartutako dokumentuen zerrenda jaso beharko dute, eta konfidentzialtasun horren zergatia azaldu.

39. klausula. Datu pertsonalen babesa.

Enpresa adjudikaziodunak eta enpresako langileek zerbitzua ematean ezagututako datu pertsonalen sekretu profesionala gorde behar dute, eta betebehar hori mantendu egingo da kontratua amaitu ondoren ere, indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko araudia betez.

Adjudikaziodunak datuen babesaren arloan dituzten betebeharren gaineko prestakuntza eta informazioa eman behar die langileei, zehazki kontratua gauzatzean dituzten zereginak burutzean nahitaez bete beharko dituztenei dagokienez, eta, bereziki isilpekotasuna mantentzeko betebeharretik eratorritakoak. Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu haren langileek betebehar horiek ez betetzeak eragiten dituen legezko arau-hausteak.

Adjudikaziodunak eta haren langileek zorrozki bete beharko dituzte lan egiten duten udal-bulegoetako segurtasun-dokumentuak, kontratua gauzatzeko zerbitzuak eman bitartean.

Adjudikatutako kontratuak datu pertsonalen tratamendua barne hartzen badu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko indarrean dagoen araudia errespetatu beharko da, SPKLaren hogeita bosgarren xedapen osagarrian ezarritakoarekin adostasunean.

Bosgarren atala. Aseguruak eta kalteen gaineko erantzukizunak

40. klausula. Aseguruak.

Kontratistak plegu honen **I. eranskineko 16. idatz-zatian** adierazten diren aseguru-polizak sinatu behar ditu, haren ardurapean eta idatz-zati horretan ezarritako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzekin.

41. klausula. Kontratistaren erantzukizunak kalte-galerengatik.

SPKLaren 196. artikuluan xedatzen da kalte-galerak ordaintzeko araubidea. Horren arabera, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren jardueren ondorioz hirugarrenek zuzenean edo zeharka jasan ditzaketen kalte-galerak. Kalte-galerak administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa direnean, administrazioa izango da kalte-galera horien erantzule, legeak ezarritako mugen barruan.

Administrazioa izango da, era berean, erantzule, fabrikazio-horniduraren kontratuan proiektuaren akatsek hirugarrenei kalteak eragiten dizkietenean.

Kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak oker egikaritzeagatik hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, administrazioak plegu honen **I. eranskineko 30. idatz-zatian** zehazten diren zehapenak ezarriko dizkio.

II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa.

42. klausula. Kontratua lagatzea.

Adjudikaziodunak kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke, salbu eta kontratua adjudikatzeko arrazoi nagusia lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak izan badira, SPKLaren 214.2 artikuluan ezarritako ustezkoak eta baldintzak betetzen badira eta lagapen horren ondorioz merkatuan lehia murrizten ez bada. SPKLaren 214. artikuluaren 2 ataleko b) letran ezarritakoa alde batera utzita, ezingo zaio hirugarren bati lagapenik egin, lagapen horrek kontratistaren ezaugarriak nabarmen aldatzen baditu eta horiek kontratuaren funtsezko elementu badira.

Kontratua lagatzeko aukerari dagokionez, plegu honen **I. eranskineko 25. idatz-zatian** jasotakoari men egin beharko zaio.

43. klausula. Azpikontratazioa.

Kontratistak, plegu honen **I. eranskinaren 24. idatz-zatian** aurreikusitakoa betez, hirugarrenekin ados dezake kontratua partzialki burutzea, salbu eta, SPKLaren 215. artikuluaren 2. idatz-zatiko d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera, kontratuaren prestazioa edo prestazioaren zati bat kontratistak zuzenean egikaritu behar ez badu, eta baldin eta SPKLaren 215. artikuluaren 2. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen badira.

Baldintza horiek betetzen ez badira, azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzen ez bada edo larrialdi-egoeraren edo azpikontratatzea premiazkoa egiten duten baldintza erabakigarriak azaltzen ez badira, ondorio hauek sortuko dira, SPKLan aurreikusitakoez aparte eta kontratuaren egikaritzean izan duten eraginaren arabera:

A) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50rainoko zehapena ezartzea, plegu honen **I. eranskineko 28. idatz-zatian** xedatutakoaren arabera.
B) Kontratua amaitzea, betiere SPKLaren 211. artikuluaren 1. idatz-zatiko f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Halaber, azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeari dagokionez, SPKLaren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete beharko ditu.

Edonola ere, azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean bakarrik erantzun beharko dute. Ondorioz, kontratista izango da kontratua egikaritzearen erantzule bakarra administrazioaren aurrean, eta administrazio-klausula berezien plegua eta kontratuaren baldintzak zorrozki betetetzeaz gainera, SPKLaren 201. artikuluan ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan jasotzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

Azpikontratistak ezingo dira administrazio kontratatzailearen aurrean zuzenean aritu, kontratistak administrazioarekin kontratu nagusiaren eta azpikontratuen egikaritzearen ondorioz dituen betebeharrei dagokienez.

Kontratistak, kontratua adjudikatu ostean eta beranduenez, kontratua egikaritzen hastean, kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio asmoa duela azpikontratuak egiteko, zer zati azpikontratatu nahi duen eta baita azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak ere. Halaber, azpikontratistaren gaitasuna justifikatu beharko du, eta hark dituen elementu teknikoak eta giza balaibideak eta esperientzia adieraziko ditu horretarako.

Kontratistak, orobat, azpikontratuaren berri emateko idazkiarekin batera, egiaztatu beharko du azpikontratistak kontratuak egiteko debekurik ez duela, SPKLaren 71. artikuluari jarraikiz. Azpikontratatzailearen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egin dezake hori.

Kontratista nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi behar dio informazio horretan kontratu nagusia egikaritu bitartean izandako edozein aldaketa, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman.

Kontratistak azpikontratazioaren langile-ordezkariak jakinaren gainean jarriko ditu, laneko legeria betez.

I. eranskineko 24. idatz-zatian horrela eskatzen bada, lizitatzaileek beren eskaintzan datu hauek jasota utzi behar dituzte: azpikontratatuko duen kontratuaren zatia, zenbatekoa, eta enpresaren izena edo profila, eta lan hori burutuko duten azpikontratisten kaudimen profesionala edo teknikoa. Kasu horretan, azpikontratuak eskaintzan jasotakoari egokitzen ez bazaizkio, ezingo dira gauzatu aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpena egin eta justifikazioak ematen direnetik hogei egun igarotzen diren arte, aurretiaz administrazioaren baimen espresik edo larrialdi-egoera justifikaturik izan ezean, eta administrazioak epe horretan aurka dagoela jakinarazten ez badu.

SPKLaren 217.1 artikulua betez, kontratistak, kontratazio-organoak hala eskatzen badu, kontratuan parte hartuko duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko du, haien parte-hartzea burutzen den unean. Zerrenda horrekin batera, ordainketa-epearekin lotura zuzena dutenen azpikontratazio- edo hornikuntza-baldintzak ere bidaliko dizkio. Horrez gain, administrazioak hala eskatuta, prestazioa amaitzean ordainketa horiek egiaztatu beharko ditu, SPKLaren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 legean ordainketak egiteko legez ezartzen diren epeen

barruan, aplikagarri zaizkion gaietan. Betebehar horiek kontratua egikaritzeko funtsezko baldintzatzat hartuko dira, eta, horiek ez betetzeak, araubide juridikoan aurreikusitako ondorioez gain, plegu honen **I. eranskineko 28. idatz-zatian** aurreikusten diren zehapenak sortuko ditu.

SPKLaren 217.1 artikuluaren 1. idatz-zatian aurreikusten diren egiaztapenak gauzatu eta ez-betetzeen zehapenak ezarri behar dira 5 milioi eurotik gorako hornikuntza-kontratuetan, kokatzeko eta instalatzeko lanak eta zerbitzuak barne hartzen dituztenean. Betebehar horiek derrigorrezkoak dira ere azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 30 edo gehiago denean, kontratista nagusiarekin kontratu bidez zati batzuk burutzeko konpromisoa hartu duten azpikontratistei ordaintzeari dagokionez.

216. eta 217. artikuluek xedatutakoa baztertu gabe, berrogeita hamaikagarren xedapen osagarrian ezarritakoa betez eta 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren guztietan, kontratazio-organoak administrazio-klausulen agirietan aurreikus dezake azpikontratistei ordainketa zuzenak egitea. Kontratu honi dagokionean, **agiriaren I. eranskineko 24. idatz-zatian** jasotakoari men egingo zaio.

Berrogeita hamaikagarren xedapen osagarriarekin bat etorriz, azpikontratistari egindako ordainketak kontratista nagusiak eginikoak direla iritziko zaio, eta administrazio kontratatzaileari dagokionez, obra-ziurtagiriei dagozkien konturako abonu berdinak mantenduko dira.

Ez zaio administrazioari inolaz ere egotziko ordainketan atzeratu izena kontratista nagusia azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin ados ez egoteagatik.

III. KAPITULUA Kontratua egikaritzea

Lehenengo atala. Arriskua eta mentura.

44. klausula. Arriskua eta mentura.

Kontratua egikarituko da arriskua eta mendura kontratistaren gain direla, SPKLaren 197. artikuluan ezarritakoarekin adostasunean.

Bigarren atala. Kontratua betetzea

45. klausula. Horniduraren harrera.

Horniduraren xede diren ondasunak kontratuan ezarritako lekuan eta denboran entregatu beharko ditu enpresa kontratistak, ezaugarri teknikoen agirian eta baldintza administratiboen agirian adierazitakoari jarraituz.
Enpresa esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak Administrazioaren esku utzi aurretik gerta litezkeen galera, matxura edo kalteengatik, non eta azken hau ez den berandutzaz aritu ondasunak jasotzeko unean.

Ondasunak jasotzeko egintza formala, baldintza-agiriko baldintzen arabera, ondasunak entregatu ondoren egin behar bada, Administrazioaren erantzunkizuna izango da entregaren eta jasotzearen arteko bitarte horretan ondasunak zaintzea.

Hirugarren atala.

46. klausula. Egikaritze-okerra eta atzerapena.

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera berau egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren ondorengo egikaritzeen zatikako epeetan.

Hornikuntzek atzerapenik jasango balute, beti ere kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla tarteko, eta honek, egikaritze epea zabalduko balitz, bere konpromisoak betetzeko borondatea edukiko balu, kontratazio organoak emango dio, gutxienez galdutako denboraren beste hainbeste, kontratistak gutxiago eskatzen ez badu SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintzak eta tramiteak HAKLAOren 100. artikuluan ezarritakoa betez. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du atzerapena kontratistaren egotzi ahal zaion edo ez azaltzen duena.

Ondorengo egikaritzerik ez duten hornikuntzako kontratuetan, SPKLren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresariari egotzi dakiokeen atzerapena ematen bada, organo kontratatzaileak epea zabaldu dezake, baina SPKLren 19. eta ondorengo artikuluetan agertzen diren zehapenak alde batera utzi gabe.

Lan-programa aurkezteko betebeharra agiri honen **I. eranskineko 9. idatz-zatian** zehaztuko da.

Kontratistak gauzatu beharreko lan-programa aurkeztuko dio kontratazio-organoari, **I. eranskineko 9. idatz-zatian** adierazitako epean, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Egitarau horretan, zerbitzuaren edukiari erantzuteko beharrezkotzat jotzen dituen zereginak jasoko ditu, eta, hala badagokio, zeregin bakoitzerako epe partzialak ezarri. Horretarako, astea eta hilabetea hartuko dira denbora-unitatetzat, baldintza teknikoen agirian kontrakorik adierazi ezean. Lan-programak kontratuan zehaztutako emate-data edo- epe guztiak errespetatuko ditu, eta agiri hartan eskatutako datu guztiak jasoko ditu.

Kontratistak berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratu honetan zehaztutako prestazioak partzialki bete ez baditu, **I. eranskineko 8. idatz-zatian** adierazten den bezala, administrazioak, kasu bakoitzeko egoerei erantzunez, kontratua amaitzea edo agiri honen **I. eranskineko 30. idatz-zatian** kasu horietarako zehazten diren zehapenak ezartzea erabaki dezake.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo ez-betetzeen ondorioz kontratua egikaritzeko haren kostu errealetik % 5 baino gehiago desbideratzen bada, BEZik gabe, organo kontratatzaileak kontratua bukatutzat eman edo epea luzatu dezake, zehapen berriak ezarriz. Azken egoera honetan, organo kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen duen epe luzapena egin dezake.

Era berean, Administrazioak eskumen bera izango du zatikako epeak ez-betetzean, hornidura egiteko finkatutako epe osoa beteko ez dela aurreikusten badu.

Administrazioak, kontratistak ezarritako zatikako epeak ez betetzean, kontratua amaitzea edo agiri honen **I. eranskineko 30. idatz-zatian** kasu horietarako zehazten diren zehapenak ezartzea erabaki dezake.

Zehapenetan agertzen ez diren kasuetan eta Administrazioari eragindako kalteak barne-hartzen ez dituenetan, epeak ez-betetzeagatik, kontratistari kalte-ordainak eskatuko zaizkio.

Laugarren atala: Kontratua aldatzea eta etetea

47. klausula. Kontratua aldatzea.

Kontratu administratiboak interes publikoko arrazoiak daudenean baino ezin dira aldatu, SPKLaren bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. idatz-zatiko 4. azpiatalean aurreikusitako kasuetan eta moduan. Horretarako, SPKLaren 191. artikuluan araututako prozedura beteko da, SPKLaren 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek gauzatutako kontratu administratiboak indarrean dauden bitartean baino ezin dira aldatu, SPKLaren 203. artikuluaren 2. idatz-zatian ezarritako kasuren bat ematen denean.

Kontratua administrazio-klausula berezien agirian aurreikusitako baldintzetan aldatuko da, agiri honen **I. eranskineko 26. idatz-zatian** horrela ezarrita badago eta SPKLaren 204. artikuluan adierazitako moduan eta edukiarekin.

Agiri honen **I. eranskineko 26. idatz-zatian** ezarriko da aldaketa horiek kontratuaren prezioaren ehunekoari zenbatean eragin diezaioketen gehienez ere.

Kontratistek nahitaez bete behar dituzte kontratazio-organoak adostutako aldaketak, SPKLaren 206. artikuluan ezarritako baldintzetan. Aldaketa horiek SPKLaren 153. artikuluan ezarritakoaren arabera formalizatu behar dira, eta lege horren 207. eta 63. artikuluetan xedatutakoaren arabera argitaratu.

Araubideari dagokionez, SPKLaren bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. ataleko 4. azpiatala eta SPKLaren 191. eta 203. artikuluak bete beharko dira, eta baita arauz ezarritakoa ere.

SPKLaren 301.2 artikuluan xedatutakoa betez, hornidura kontratuetan, prezioa unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez da aldaketatzat joko prestazioa zuzen burutu bitartean benetan egikaritutako unitateen kopurua aldatu izana kontratuan aurreikusitakoaren aldean, baldin eta administrazio-klausula berezien agirian horrela jasota badago. Aldaketa horiek kitapenean jasota gera daitezke, betiere kontratuaren prezioaren % 10etik gorako gastua ez badute, SPKLren 205.2c) 3. artikuluan aipatzen den bezala.

Kontratu honetan, agiri honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** jasotzen da unitate kopurua kontratuaren prezioaren % 10eraino areagotzeko aukera.

48. klausula. Kontratua etetea.

Interes publikoko arrazoiengatik, administrazioak kontratuaren egikaritzea etetea erabaki dezake. Era berean, SPKLaren 198.5 artikuluan aipaturiko egoera emanez gero, kontratua eten egingo du. Kontratua eteteari dagokionez, SPKLaren 208. artikulua eta bat datozen HAKLAOren aginduak bete beharko dira.

SPKLaren 208. artikuluarekin adostasunean, administrazioak kontratua etetea edo SPKLaren 198.5 artikulua aplikatuz dagokiona erabakitzen badu, administrazioak kontratistari ordainduko dizkio hark jasan dituen kalte-galerak, agiri honen **I. eranskineko 29. idatz-zatian** jasotako arauei jarraikiz.

Bosgarren atala: Zehapenak

49. klausula. Zehapenak.

Kontratistak, Administrazioak ezarritako kontratua burutzeko ezarritako epearen barruan gauzatu beharko du kontratua, eta egikaritzapenean adierazitako epe partzialak ere bete beharko ditu. Hornidura egikaritzean atzerapenik balego kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, SPKLaren 193 eta 195 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

SPKLaren 29.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, enpresaria prestazioa egikaritzean atzeratzen bada, kontratazio-organoak egikaritze-epea luza dezake. Dena dela, dagozkion zehazpenak ezarriko zaizkio, SPKLaren 192. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa betez.

Ez-betetze partzialak edo akatsak daudenean edo egikaritzean hartutako konpromisoak alde batera uzten direnean, azken hauek kontratua esleitzeko irizpide izanik, plegu honen **XII. Eranskinean** ezarritako zehapenak ezarriko dira.

IV. KAPITULUA. Kontratua amaitzea.

Lehenengo atala. Kontratua amaitzea

50. klausula. Kontratua amaitzea.

Kontratistak kontratuaren baldintzak eta xedea osorik betetzen dituenean emango da kontratua amaitutzat, administrazioa lanarekin ados badago.

51. klausula. Kontratuaren harrera.

Administrazioak prestazioa jasotzeko edo harekin ados dagoela adierazteko ekitaldi formala hurrengo hilabetearen barruan egingo da, kontratuaren xede den prestazioa ematen edo burutzen denetik. Kontu-hartzaileari ekitaldiaren berri emango zaio, ekitaldira bertaratu eta inbertsioaren egiaztapen materiala egin dezan, hari dagozkion eginkizunen baitan.

Ondasunak egoera onean eta ezaugarri teknikoetan aurreikusi bezala baldin badaude, Administrazioak izendatutako pertsonak hartutzat emango ditu eta harrera-akta egingo da, zeina bertan dauden pertsonak izenpetu beharko duten. Berme-epea una horretan bertan hasiko da.

Kontratistaren prestazioa jasotzeko moduan ez badago beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako, idatzizko jarraibideak emango zaizkio antzemandako akatsak konpondu eta dagozkion betebeharrak zehaztutako epean bete ditzan edo adostutakoaren arabera hornidura berria egin dezan.

52. klausula. Kontratuaren kitapena.

Hala badagokio eta kontratuaren izaerak horrela eskatzen badu, kontratuari dagokion kitapena egingo zaio, hogeita hamar eguneko epean, prestazioaren ados dagoela adierazi edo jaso duen datatik zenbatzen hasita. Kontratistari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, dagokion saldoa ordainduko zaio. Edonola ere, prestazioa jasotzeko ekitaldiaren ondoren hartzen bada faktura,

hogeita hamar eguneko epea kontratistak dagokion erregistroan behar bezala aurkezten duenetik hasiko da zenbatzen, faktura elektronikoko arloan indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betez.

Kitapeneko saldoa ordaintzean berandutzerik balego, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 legeak aurreikusitako baldintzetan.

Bigarren atala. Bermealdia.

53. klausula. Bermealdia.

Bermealdia administrazioak prestazioarekin ados dagoela adierazten den edo prestazioa jasotzen duen datan sartuko da indarrean, eta agiri honen **I. eranskineko 30. idatz-zatian** jasoko da.

Epe horretan, behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluan adierazten diren eta aplikaziozkoak zaizkion kontzeptuak estaliko ditu.

Prestazioaren jasotze partzialak egiten badira, administrazioaren onespenarekin eman eta jasotako ondasunen bermealdia jasotzen diren egunetik egongo da indarrean.

54. klausulak. Akatsak edo hutsegiteak bermealdian zehar.

Bermealdian zehar burututako lanek akatsak edo hutsegiteak dituztela egiaztatzen bada, Administrazioak horiek konpontzeko edo ordezteko eska diezaioke kontratistari. Epe horren barruan Kontratistak kontratatutako prestazioaren gainean emandako oharrak ezagutzeko eta haren iritzia emateko eskubidea edukiko du.

Organo kontratatzaileak, bermealdiaren barruan, jasotako hornidurak edo ondasunak egokiak ez direla usteko balu, kontratistari egotz dakizkiokeen akats eta hutsegiteen eraginez, eta ikusiko balitz akats horien konpontzea ez litzatekeela nahikoa bilatutako xedea lortzeko, bermealdia bukatu baino lehen, jasotako ondasunak errefusatzeko aukera izango luke; Administrazioa ordaintzeko beharretik libre geratuko litzateke edota ordaindutako dirua berreskuratzeko aukera izango luke.

Bermealdia amaituta administrazioak SPKLaren 305 artikuluko 1. eta 3. ataletan aipatutako salaketa edo eragozpenak formalizatzen ez badu, kontratistak ez du emandako prestazioaren gainean inolako erantzukizunik izango.

Hirugarren atala. Administrazioaren eskumenak eta ahalmenak.

55. klausula. Administrazioaren eskumenak.

Kontratua burutu ostean, kontratazio-organoak aldaketak egin diezazkioke soilik interes publikoko arrazoiak daudenean, eta koadro - laburpenaren Q atalak eta XIV. eranskinak horrela aurreikusten dutenean edo legez ezarritako kasuetan eta mugekin. Aldaketa horiek kontratazio-organoak

erabaki behar ditu, dagokion prozedura izapidetu ondoren. Dokumentu administratibo batean formalizatu beharko ditu, eta kontratatzailearen profilean argitaratu.

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak lan-programa eguneratu beharko du.

Aurreikusitako aldaketak
Kontratistak nahitaez bete behar ditu aldaketa horiek. Aldaketa horiek adosteko prozeduraren barruan, kontratistari entzunaldia emango zaio, 5 egunekoa gehienez, eta aginduzkoak diren gainontzeko izapideak ere beteko dira. Aldaketak egitea aurreikusten bada, XIV. eranskinean egoerak, baldintzak, irismena eta mugak zehaztu behar dira, eta espresuki adieraziko da kontratuaren adjudikaziorako prezioari zer ehunekotan eragin diezaioken gehienez ere eta zer prozedura jarraituko den. Aldaketak egiteko hainbat kausa aurreikusten badira, horietako bakoitzean egoerak, baldintzak, irismena, mugak eta ehunekoa jasota utzi beharko dira.

Beharbada, kontratu batzuetan enpresariak ondasun anitz eman behar izango ditu, bata bestearen segidan eta aleko prezioan eta kontratua gauzatzean emateen kopuru osoa zehaztasunez ez adierazita, horiek administrazioaren beharren araberakoak direlako. Kasu horretan, kontratua indarrean dagoen bitartean benetako beharrak hasiera batean balioetsi zirenak baino handiagoak badira, aldaketa hori hasiera batean onartutako gehienezko aurrekontua amaitu baino lehen izapidetu egin beharko da, eta, horretarako, kreditua gordeko da, behar berrien gehienezko zenbatekoari estaldura emateko.

Aurreikusi gabeko aldaketak
Aurreko atalean aurreikusten direnez bestelako aldaketak sar daitezke soilik interes publikoko arrazoiak daudenean eta SPKLaren 205. artikuluan adierazitako kasuetako bat edo batzuk ematen direla nahikoa justifikatzen direnean.

Kontratistek aldaketa horiek nahitaez bete behar dituzte, baldin eta aldaketa bakoitzak edo denek batera kontratuaren hasierako prezioa % 20 aldatzen badute (BEZ kanpo). Kontratistak zenbatekoarengatik aldaketarik egin behar ez badu, kontratistaren baimen espresa beharko da aldaketa hori egiteko.

Laugarren atala: Kontratua amaitzea.

56. klausula. Kontratua amaitzea.

Legez ezarritakoez gainera, agiri honen **XV. eranskinean** jasotzen diren arrazoiengatik eman daiteke amaitutzat kontratua.

Kontratua HAKLAOren 109. eta ondorengoko artikuluetan zehazten den prozedurari jarraikiz izapidetuko da ebazpena ematen denetik 8 hilabetetako epean.

Gainera, kontratazio-organoak funtsezko betebehar gisa **XIII. eranskinean** ezartzen dituen arrazoiengatik ere eman daiteke kontratua amaitutzat.

ABEEn kasuan, kideetako bat SPKLaren 211 a) eta b) artikuluetan adierazitako kasuren batean badago, administrazioak aldi baterako enpresa-elkartea eratzen duten gainontzeko enpresei kontratu-betebeharrak betetzeko eska diezaieke, edo kontratua amaitutzat ematea erabaki.

VI. eranskinean jasotakoaren arabera, kontratua egikaritzean giza baliabideak edo baliabide materialak esleitzeko konpromisoak betetzen ez badira, kontratua amaitutzat eman daiteke, eta **XII. eranskinak** berariaz horrela zehazten badu, edo, hala badagokio, dagozkion zehapenak ezarriko dira.

Bosgarren atala. Helegiteak.

57. klausula. Helegiteak.

SPKLren 44. artikuluan arreikusitako kasuetan, aukerakoa izango da administrazio-helegite berezia jartzea kontratazioaren alorrean, administrazioarekiko auziaren aurretik, 15 egun baliodunekoepean, SPKLren 50. artikuluan ezarritako baldintzetan. Errekurtso hori ebazteko organo eskuduna EAEko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da.

Helegite bereziaren bidez aurkaratu daitezkeen jarduketen aurka ezin da jarri administrazio-helegite arruntik.

Herri-administrazioen kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, SPKLren 44. artikuluko 1. idatz-zatiko baldintzak betetzen ez dituzten egintzei helegitea aurkeztu ahal izango zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearenak, eta 29/1998 Legeak, uztailaren 13koak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, ezarritakoari jarraituz.

EGINBIDEA: Administrazio-baldintza partikularren plegu hau Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu da 2019ko abuztuaren 9an.

DILIGENCIA: Este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía el día 9 de agosto de 2019.

Udal Idazkaria / La secretaria municipal

I. ERANSKINA

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

IZENBURUA: TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ.

1.- Kontratuaren xedea zehaztea: (5.klausula)

CPV kodea/k:	**31520000-7 Lámparas y accesorios de iluminación**
Lotetan banatzea: EZ	**Indalux markako 68 retroled ekiporen hornidura Alliance 2 diseinuko luminarientzat eta 63 retroled ekiporen hornidura Alliance 1 diseinuko luminarientzat.**

Kontratuko loteak ez banatzearen justifikazioa: Kontratuaren xedea, zenbatekoa eta iraupena aintzat harturik, loteetan banatzea ez da komenigarria ikusten, ez duelako konpetentzia era bidegabekoan mugatzen.

Kontratuaren bidez asebete beharreko behar administratiboak:
Herriaren argi-ikuskaritza eta Energiaren Euskal Erakundeak aurkeztutako energia-analisia egin ondoren eta V.A.S.P. argiteria publikoa LED argiengatik aldatzeko politikari jarraituz, Tolosako Udalak LED luminaria eta lanparak erosteko beharra du, argiteria publikoaren energia eta argiteriaren hobekuntzari jarraipena emateko.

2.- Administrazio-organoak. (2., 3., 33. eta 35. klausulak)

Kontratazio-organoa: Alkatetza.

Unitate izapide-egilea: Hirigintza Departamentua.

Posta helbidea: Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa, Gipuzkoa.

Kontratazio mahaiaren konposizioa

Lehendakaria:	Alkatea, Olatz Peon Ormazabal *Ordezkoa: alkateordea, Patxi Amantegi Zubiria.*
Bokala 1:	Udal idazkaria, Begoña Garmendia Vazquez *Ordezkoa: Administrazio Orokorreko teknikaria, Karmele Contreras Goikoetxea.*
Bokala 2:	Udal kontuhartzailea, Ainhoa Molinos Zubiaurre *Ordezkoa: Kontuhartzailetza teknikaria, Paulino Alonso Eraso.*
Idazkaria (botorik gabe)	Kontratazio teknikaria: Francisco Javier Araniguría Rodrigo. *Ordezkoa: Hirigintzako administraria: Elixabete Aramendi Aguirrezabalaga.*

3.- Kontratuaren jarraipen eta egikaritzeaz arduratzen den unitatea. (4. klausula)

Hirigintza departamentua.

Kontratuaren arduraduna: Aitor Etxaide Agirre, jarduneko Udal ingeniaria.

4.- Balio zenbatetsia. (6. eta 19. klausulak)

	plazo	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2019	2 meses	36.500,00	44.165,00

Balio zenbatetsia kalkulatzeko aplikatutako metodoa:
SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak, gastu orokorrak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

5.- Lizitazioaren oinarri-aurrekontua eta hura asetzeko kreditua. (7., 8., 35. eta 47. klausulak)

Aurrekontua (BEZa kanpo): **36.500,00 euro.**	
BEZa: **7.665,00 euro**	Mota: **% 21**
Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **44.165,00 euro, BEZa barne**.	

- Prezioa ezartzeko sistema: Oroharreko prezioan.

- Mantenurik badauka: EZ.

- Diru-xehez edo beste ondasunen bidez ordainketa: EZ.

- Baterako finantzaketa: EZ. Tolosako Udalak: 100%

- Unitate kopurua kontratuko prezioaren % 10eraino areagotzeko aukera: EZ.

6.- Prezioak berrikustea (13. klausula).
Badago halakorik: EZ

7.- Ordainketen araubidea(35. klausula).
Ordainketa bakarra, aldez aurretik lana osotasunean entregatu eta adostasunez hartu ostean.
Konturako ordainketarik prestaketa-lanengatik: EZ

8.- Egikaritze-epe eta -lekua. (9., 10. eta 22. klausulak)
Gehieneko epea: bi hilabeteko izango da, kontratua sinatzen den momentutik kontatzen hasita.

Luzapena: EZ dagokio

Epe partzialak: BAI, puntu honetan azaldutakoak.

Jasotze partzialak: BAI, puntu honetan azaldutakoak.

Jasotze partzialek EZ dute ahalbidetuko kontratistak behin betiko bermearen zati proportzionala ezeztatzea eskatzeko eskubidea izatea.

9.- Hornikuntzaren entrega eta Administrazioaren ahalmenak. (9. eta 36. klausulak)
Ondasunak entregatzeko tokia: Tolargik Tolosako Usabal auzoan duen udal biltegia.

Administrazioak modu honetan egingo du horniduraren zaintza eta egiaztapena: kontratuaren arduraduna arduratuko da jasotako hornidurak ondo daudela eta eskatutakoaren araberakoak direla egiaztatzeaz.

10. Adjudikazio-prozedura eta -irizpideak. (18. eta 20. klausulak)
Aurretiazko izapideak: EZ.
Izapidetzeaa: Arrunta.
Prozedura: irekia sinplifikatua.
Adjudikazio-irizpideak: Hainbat irizpide hartzen dira kontuan.

11.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa (14., 15., 16., eta 33. klausulak)

11.1 Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea:
SPKLaren 87.1 artikulukoaren a) idatz-zatian xedaturikoarekin bat etorriz, lizitatzaileak urteko negozio bolumena, azkeneko hiru urte eskuragarrien artean den ekitaldirik onenari dagokiona, gutxienez 35.000 euroko kopuruagatik. Kaudimen hori egiaztatzeko, Erregistro Merkantilean aurkeztutako urteko kontuak aurkeztu beharko ditu azkeneko hiru urte eskuragarrien artean den ekitaldirik onenari dagokiona eta **A gutun-azalean sartu beharko ditu.**

11.2 Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea:
SPKLren 90.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, azken hiru urteetan **gutxienez** kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko **hiru lan** egin izana egiaztatu beharko ditu, aipatuz, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua. Horretarako, dagokion VI. Eranskineko atala bete beharko da. **Dena dela, A gutun-azalean sartu behako da.**

12.- Kaudimenaren baldintzak zehaztea. (17. eta 28. klausulak)
Kontratuaren egikaritzerako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak bideratzeko konpromisoa: EZ

13.- Enpresa-gaikuntza. (14. eta 33. klausulak)
Badago halakorik: BAI

Enpresa-gaikuntza egiaztatzeko, enpresaren objektu soziala izango da kontutan eta hau kontratuaren xedearekin bat datorren egiaztatuko da.

14.- Behin betiko bermea. (21. klausula)
Badago halakorik: BAI, eskainitako azken prezioaren % 5, BEZa kanpo.

Prezioan atxikipena aplikatzearen bidezko eraketa. Badago halakorik: EZ.

15- Berme osagarria. (21. klausula)
Badago halakorik: EZ

16.- Aseguru-polizak. (33. klausula)

Badago halakorik: BAI. Erantzukizun zibileko asegurua hirugarrenei sortutako kalteengatik, gutxienez hirurehun mila euroko (300.000,00 €) zenbatekoa duena, sortu daitezken ondare erantzukizun erreklamazioengatik kontratista estaltzeko.

Polizak entregatzen diren unea: Kontratua esleitu aurretik; beraz, ez da beharrezkoa proposamenarekin batera aurkeztea, esleipen dunari bakarrik eskatuko baitzaio.

17.- Proposamenak egiteko modua: (25. eta 40. klausulak)
Proposamenak aurkeztu beharko dira eskuz (elektronikoki ez) BI GUTUN-AZAL INDEPENDENTETAN, kanpoaldean hau daramatela idatzita: enpresa lizitatzailearen izena, bere IFKa, harremanetarako telefono eta posta elektroniko bana, eta enpresaren ordezkariaren izena. Gainera, gutun-azalei ondoren adierazten den moduan jarri behar zaie izenburua:

"A" GUTUN-AZALA: TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ EGINGO DENA.

1.- VI. ERANSKINA

Barruan izan behar ditu "Erantzukizunpeko adierazpena eta Zifratan edo ehunekotan balora ezin daitezkeen irizpideen eskaintza". Horretarako, **VI. eranskineko eredua erabili behar da.**

a) Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko, aurkeztu behar dira Erregistro Merkantilean aurkeztutako azken hiru urte eskuragarrietan onena izen den ekitaldiko **urteko kontuak**.

b) Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, ziurtatu behar denez izaera bereko edo antzekoa duten **hiru lan gutxienez** egin direla, erantzukizunpeko adierazpenean jaso behar dira lan horien izenburua, zer urtetan egin ziren, prezioa eta zer entitatek enkargatu zituen. Horretarako, VI. Eranskineko eredua erabili behar da.

c) Baldin eta proposamena **ABEE-UTE** batek egiten badu, hori adierazi egin behar da, eta era berean, adierazi behar da, erantzukizunpeko adierazpen batean, zer ehunekotan hartzen duen parte ABEE horretako enpresa bakoitzak eta zein den ABEE horren ordezkaria.

d) Honako agiri hau: Erantzukizunpeko adierazpena, agertzeko betetzen direla bai langileen % 2k **desgaitasunen** bat izateko edo ordezko neurriak hartzeko betebeharra, bai indarreko araudian lanaren, gizartearen eta emakume eta gizonen berdintasun eraginkorraren arloetan ezarritako betebeharrak.

e) Lizitatzaileek zer kontratu-zati **azpikontratatu** behar duten, haren zenbatekoa, zer ehuneko den kontratuaren zenbateko osoarekiko, eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazi beharko dute eskaintzan VI. Eranskineko atala betez.

2.- PROPOSAMEN TEKNIKOA

Gutun-azal honetan sartu beharko da, orobat, 18. puntuan baloratuko diren irizpideei erantzuna ematen dien proposamen teknikoa, hau da: "Azterlana, luminoteknia-proposamena eta kanpoko argiteria instalazioetan Efizienzia Energetikoaren Araudiaren betetzea" eta "EEEren dokumentazioa" baloratzea.

Proposamenaren edukiak barne hartuko ditu Baldintza Teknikoen Pleguaren 9. klausulan aipatutako atalak,

Proposamen tekniko hau aurkezten ez bada, enpresa berehala kanporatuko da lizitazio-prozeduratik. Era berean, gutun-azal honetan informazioren bat sartzen bada, edozein dela ere, zifratan edo ehunekotan balora daitezkeen irizpideen gainean, lizitatzailea berehala kanporatuko da.

3.- DOKUMENTAZIO OROKORRA ETA ZIURTAGIRIAK

Enpresa lizitatzaile guztiek aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan, Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguaren 1 zatian "ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA ETA ZIURTAGIRIAK" eskatutako dokumentazio guztia.

4.- KAUDIMENA KANPOKO BITARTEKOEN BIDEZ EGIAZTATZEA

Baldin eta **kaudimena kanpoko bitartekoen** bidez egiaztatzen bada, ezinbestekoa izango da VIII. Eranskinean dagoen eredua betetzea.

5.- LAGINAK

Lizitatzaile guztiek bi lagin aurkeztu beharko dituzte:

- retroled ekipoaren lagin bat Alliance 2 diseinuko luminarientzat
- retroled ekipoaren lagin bat Alliance 1 diseinuko luminarientzat.

Bi lagin horiek Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan eskatutakoarekin bat etorri beharko dute, Eranskin honetako 18. puntuan baloratuko diren irizpide guztiak egiaztatu ahal izateko.

"C" GUTUN-AZALA: TOLOSAKO ALONDEGI PLAZAN JARTZEKOA DEN EGITURA TENKATUAREN HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA MUNTAIA, EGIKARITZE-PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA MUNTAIA EGIKARITZEKO ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA.

1.- VII. ERANSKINA

Hemen sartu behar da "Zifratan edo ehunekotan balora daitezkeen irizpideen dokumentazioa". Horretarako, **VII. Eranskinean dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren eredua** erabili behar da.

Enpresa lizitatzaileen proposamenak aurkeztuko dira Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean (helbidea: Plaza Zaharra 6A, 20400 Tolosa), astelehenetik ostiralera, 07:15etik 13:00etara, edo bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako moduetako batean, **HOGEITABOST (25) EGUN NATURAL**eko epearen barruan, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epea bukatzen den eguna larunbata edo jaieguna bada, epea bukatuko da hurrengo lanegunean. Nolanahi ere, enpresa edo pertsona lizitatzaileek beren dokumentazioa aurkeztu beharko dute, halako moldez non proposamenen sekretua bermatuta geratzen den.

Proposamenak postaz bidaliz gero, enpresa edo pertsona lizitatzaileak bidalketa Postetxean entregatutako eguna justifikatu beharko du, eta egun berean eskaintza bidali duela kontratazio-organoari jakinarazi, telex, fax edo telegramaz, betan jarrita espedientearen zenbakia, kontratuaren gaiaren izen osoa eta lizitatzailearen izena.

Aipatutako telex, fax edo telegrama hori jaso dela egiaztatzeko, bertan eginbide bat egingo du Udal idazkariak. Bi baldintza horiek gabe, eta kontratazio-organoak proposamena jasotzen badu proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, proposamena ez da onartuko.

18.- Adjudikazio-irizpideak (20.klausulak)

Esleipen-irizpide asko.

Zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideak: 25 puntu.

Apartatu honetan gutxienez 13 puntu gainditzen ez dituzten eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideak: 25 puntu.

Irizpidearen deskribapena	Balioespenaren deskribapena	Haztap
"Azterlana, luminoteknia-proposamena eta kanpoko argiteria	Luminoteknia-azterlan zehatza, 3. puntuan adierazitako banakatzearen arabera: 5 puntu.	15 puntu

instalazioetan Efizienzia Energetikoaren Araudiaren betetzea" eta "EEEren dokumentazioa" baloratzea	Memoria tekniko zehatza, zeinak aurkeztutako luminoteknia-azterlanaren eta instalazioa egindakoan lortzen diren balioen arteko korrespondentzia bermatzeko behar adinako ezaugarri tekniko jasoko dituen: 5 puntu. Dokumentazio osoa, EEEk Laguntzen eskaerak egiteko eskatzen duen formatuan: 5 puntu.	
Luminarien ezaugarrien balorazioa	Ondoko kaleetan instalatutakoen antzeko estetika eta diseinua duten luminariak: 10 puntu. Luminaria osatzen duten materialak, haren sendotasuna, mantentze-lanetan bertara sartzeko erraztasuna, e.a...: 5 puntu.	10 puntu

18.2 Zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideak: 75 puntu.

Irizpidea	Formula	Formularen justifikazioa	Haztap
Prezioa	R puntuazioa = 45 – 1,5 x (Baja K – Baja R)	Prezioko puntuaziorik handiena emango zaizkio proposamen baxuenari (K), eta 0 puntu lizitazio-prezioari, eta gainerakoei (R) ondorengo formula aplikatuko zaie. Bajak portzentualki adieraziko dira, eta emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango dira.	45 puntu
Luminaria bakoitzean etiketa adimendunak jartzea	Luminaria bakoitza hornitzen bada QR, Bidi edo baliokideren bat duen etiketa digital batez, luminariaren kanpoko aldean eta luminariaren enbalajean jarria, eta luminaria entregatzen bada etiketaren ale gehiagorekin, euskarriaren edozein tokitan jartzeko. Etiketa digital bakoitzak eskaini behar du telefono mugikorraren aplikazio batez eskaneatzeko posibilitatea, horrela emateko, batetik, luminariaren ezaugarrien gaineko informazioa eta, bestetik, berme-aldiaren hasiera markatzen duen instalatutako data. Baldintza hauek betetzen badira gehienezko puntuazio emango zaio, bete ezean, 0 puntu.		15 puntu
	aplikazioak aukera ematen badu ordezko driverra telefono mugikor edo tablet batetik zuzenean birprogramatzeko, hasierako konfigurazioarekin, haririk gabeko komunikazio baten bitartez (Bluetooth, NFC edo baliokide den teknologia erabilita). Baldintza hauek betetzen badira gehienezko puntuazio emango zaio, bete ezean, 0 puntu.		15 puntu

19.- Arrazoizkoa baino eskaintza txikiagoak. (20. eta 31, klausula)

Badago halakorik: BAI.

Adjudikazio-irizpideak eta eskaintza bat anormaltzat jotzen dela identifikatzea ahalbidetzen duten parametro objektiboen aukeraketa**:**

Irizpideak	Eskaintza bat ohiz kanpokotzat jotzen dela identifikatzea ahalbidetzen duten parametroak
Kontratuaren prezioa	Balore ohiz kanpokoak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak. Ohiz kanpokotzat edo neurriz kanpokotzat joko dira hurrengo egoeraren batean aurkitzen diren eskaintzak: a) Lizitatzailea bakarra izanda, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren azpitik

	badago 20 unitate portzentualetik gora; b) Bi lizitatzaile badira, eskaintza bat bestearena baino txikiagoa bada 20 unitate portzentualetik gora. c) Hiru lizitatzaile edo gehiago badira, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino txikiagoa dena 10 unitate portzentualetik gora. Halere, batezbesteko hori konputatzeko, kendu egingo da aipameneko batez bestekoa baino 10 unitate portzentual gorago dagoen eskaintza. Edozein kasutan, neurriz konpokotzat joko da 25 unitate portzentualetik gorako beherakada. Eskaintzak ohiz kanpokotzat edo neurriz kanpokotzat jotzeko, Kontratazio-Mahaiak kontuan hartuko du enpresak aurkeztutako eskaintzaren Memoria Justifikatzailea, eta aztertu ahal izango du enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren artean dagoen erlazioa.
Langileen lan-baldintzak	Hasiera batean, eskaintza bat ohiz kanpokotzat edo neurriz kanpokotzat joko da, baldin eta ez baditu errespetatzen kontratu-prestazioa sartzen eta garatzen den alorrean indarrean dagoen lurraldeko azken hitzarmen kolektiboko baldintzak.

Eskaintza anormala dela justifikatzeko epea: 5 lanegun jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

20.- Aldaeren onargarritasuna. (23. klausula)
Badago halakorik: EZ

21.- Adjudikazio-irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa. (27. klausula)
Aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa, **A gutun-azalean sartuko dena,** Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguaren "ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA ETA ZIURTAGIRIAK" zatian eskatutakoa izango da.

22.- Egikaritzearen baldintza bereziak. (12. klausula)
Ingurumen motakorik: ez dagokio.

Gizarte motakorik: BAI. Derrigorrezkoa da VI. Eranskineko eredua betetzea eta A gutun-azalean proposamenarekin batera sartzea.

Bat etorrita 3/2007 Legeak, martxoaren 22koak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, ezartzen duenarekin eta 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, ezartzen duenarekin, kontuan izan behar da honako hau:

- Dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan, baldintza hauek bete beharko dira: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta rol-aniztasuna eta genero-identitateak jasoko dituen irudia sustatzea.

- Datu estatistikoak, ahal bada behintzat, sexuka bereizita eman behar dira.

Lan motakorik: BAI.
• Plantillaren lan-egonkortasuna: kontratua egikaritzen duten langileen % 30, gutxienez, finkoa izango da.

• Enpresa esleipendunak langileei aplikatu beharko die kontratua egikarituko den lurraldeko azkeneko lan-hitzarmen sektoriala, kontratuan ager daitezkeen hobekuntzak baztertu gabe.

Berrikuntzarekin erlazionatutakorik: ez dagokio.

Bestelako baldintzarik: BAI. Enpresa esleipen duna derrigortuta dago proposamenean eskeinitako kontratuaren egikaritze epea betetzera eta kasu guztietan, kontratazio honen xede diren lan guztiek osorik amaituta egon beharko dute 2019ko irailaren 30erako. Bestalde, eskainitako bermealdi luzapena ere bete egin beharko dute , balorazio irizpidetako bat baita.

Zerrendatutako baldintza guztiek daukate kontratuaren funtsezko betebehar izaera emanda. Halaber, Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan aipatutako betebehar tekniko guztiek izango dute kontratuaren funtsezko betebehar izaera.

23.- Kontratua egikaritzea. (16. klausula)
Zerbitzu edo instalazio lanak dira hornidura kontratu baten inguruan: EZ

24.- Azpikontratazioa. (43. klausula)
Azpikontratazioa: kontratuaren xede diren prestazioen zatietan baimentzen da.

Zuzeneko ordainketarik azpikontratatzaileei: EZ.

Lizitatzaileek azpikontratatzeko kontratuaren zatia, haren zenbatekoa, suposatzen duen ehunekoa eta azpikontratatzaileen izena edo enpresa-profila adierazi beharko dute eskaintzan. Horretarako, VII. Eranskineko dagokion zatia bete beharko dute **eta proposamenarekin batera sartu "A" gutun-azalean**.

25.- Kontratua lagatzea. (42. klausula)
Kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak kontratistak hirugarren bati laga ahal dizkio: EZ, izan ere, lagatzea ezinezkoa da SPKLaren 214.1. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera: Lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarriak izan dira kontratua adjudikatzerakoan.

26.- Administrazio-baldintza berezien agirian aurreikusitako aldaketak (47. klausula)
Badago halakorik: EZ

27.- Amaitzea (48. eta 49, klausulak)
Kontratistari kontratua amaitzearen ondoriozko kalte eta galerak ordaintzea: SPKLren 208. artikuluan xedatutakoaren arabera.

28.- Zehapenak. (12., 41., 43. eta 46. klausulak)

a) Atzerapenagatik: SPKLaren 193. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak, berari egoz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, atzeratu egingo balitz iraupen osoaren betetzearekin , kontratuaren prezioaren —BEZa sartu gabe— 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko eguneroko zehapena jarriko litzaioke.

b) Partzialki ez betetzeagatik edo akatsekin betetzeagatik:

b.1) Akatsekin betetzeagatik: Badago halakorik: Bai. SPKLaren 192. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, kontratistak, berari egoz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, partzialki bete ez baditu kontratuan definitutako prestazioak, zigor hauek ezarriko zaizkio: baldin eta akatsa konpon badaiteke, kontratuaren prezioaren —BEZik sartu

gabe— ehuneko 2ko zigorra. Eta akatsa ezin bada konpondu, kontratuaren prezioaren —BEZik sartu gabe— ehuneko 5eko zigorra.

b.2) Giza baliabide edo baliabide materialak bideratzeko konpromisoak ez betetzeagatik: Badago halakorik: EZ.

b.3) Egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik: Badago halakorik: EZ, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

c) Adjudikazio-irizpideak ez betetzeagatik: Badago halakorik: EZ funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

d) Ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak ez betetzeagatik: badago halakorik: EZ, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

e) Subrogazioari dagokion betebeharrak ez betetzeagatik: Badago halakorik: EZ

f) Azpikontratazioaren baldintza ez betetzeagatik (SPKLaren 215.3. artikulua): Badago halakorik: BAI, azpikontratuaren zenbatekoaren % 5 zehapena.

g) SPKLaren 130. artikuluan, lan-kontratuen subrogazioari buruzkoak ez betetzeagatik: Badago halakorik: BAI, azpikontratuaren zenbatekoaren % 5 zehapena.

29.- Kontratua amaitzeko arrazoiak. (56. klausula)
SPKLaren 211. artikuluan jasotakoez gain, kontratua amaitzeko arrazoi izango dira kontratuan derrigorrezko izaera duten baldintzak ez betetzeak.

30.- Bermealdia.(22. eta 53. klausulak)
Urtebete, eta SPKLaren 111.5 artikuluan xedatutakoa betez gero, sei hilabete.

31.- Konfidentzialtasunaren betebeharra. (38. klausula)
Iraupena: 5 urte informazio horren berri izaten denetik aurrera.

32.- Agiriei buruzko informazio gehigarria eskatzeko epea. (19. klausula)
Lizitazio-prozeduran interesa dutenek agirien eta gainerako dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria eskatu beharko dute proposamenak aurkezteko epea amaitu baino bost egun lehenago.

33.- Kontratatzailearen profila. (19. eta 29. klausulak)
Tolosako Udalean kontratatzailearen profilean sartzeko helbidea hau da: https://udala.tolosa.eus/es/administraci%C3%B3n-municipal/contrataci%C3%B3n

34.- Oharrak.
Ez daude.

II. ERANSKINA: EZ DAGOKIO.

III. ERANSKINA

BERMEEN EREDUA KONTRATAZIO-PROZEDURETAN.
ABAL EREDUA

…… …….. erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen sozietate izena) …… IFK zenbakia duenak eta helbidea (jakinarazpen eta eskakizunetarako) ……(e)(a)n ……(e)(a)n…….. kale/plaza/hiribidean duenak……..Posta Kodearekin …….. eta bere izenean (Ahalordeen izen-abizenak)
…… ……ekintza honetan derrigortzeko nahiko ahal izanik, Tolosako Udalak …… egunez egindako askiespena kontuan hartuz

ABALATZEN DU

nor: (abalatuaren izen-abizenak edo sozietate-izena).....
……. IFZ …… zenbakia duenak, hemen xedatutakoaren arabera: (berme honen eraketa osatzen duten arau eta artikuluak) .....
.....
……..hurrengo betebeharrei erantzuteko: (zehaztu kontratuaren xedea eta bermatzaileak beregain hartutako betebeharra)
…… …….Tolosako Udalaren aurrean
…… ……. euroko zenbatekoaz (hizkitan) ……..(zenbakitan)
……

Entitate abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela.

Abal hau era solidarioan ematen zaio behartu nagusiari, eskusio-onurari uko eginez eta Tolosako Udalari, lehenengo eskaera egin ostean, ordaintzeko konpromisoa hartuta, herri-administrazioaren kontratuen araudian (eta hartako garapen-arauetan) aurreikusitakoaren arabera.

Abal honek bere balioa izango du Tolosako Udaleko eskumeneko organoak hura ezeztatzea baimentzen ez duen bitartean, datan adierazten den egunez inskribatu ostean Abalen Erregistro Berezian ……. zenbakiarekin.

……..……..……..…….(lekua eta data)
……(erakundearen sozietate-izena)
……..…… (Ahaldunen sinadura)

IV. ERANSKINA

BERMEEN EREDUA KONTRATAZIO-PROZEDURETAN. KAUZIO-ASEGURUEN ZIURTAGIRI EREDUA.

……..zenbakidun ziurtagiria

(1)……(e)(a)k (aurrerantzean, aseguratzailea) helbidea …….. kalean duenak, eta ……IFK zenbakiaren jabe dena, egintza honetan derrigortzeko nahiko ahal izanik, Tolosako Udalak …… egunez egindako askiespena kontuan hartuz .....(2) jaunak behar bezala ordezkatuta

ASEGURUA EGIN DIO

……(a)ri (3)……IFZ zenbakiaren jabe dena, aseguruaren hartzaile modura, Tolosako Udalaren aurrean, aurrerantzean aseguratua, ……(4) euroko zenbatekoraino, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ Kontratua (5) arautzen duten Administrazio-baldintza berezien agirian ezarritako moduan eta baldintzekin; betebeharrei, zehapenei eta Aseguratuaren aurrean aurrez aipaturiko arau zein baldintzen ondorioz erator daitezkeen gainerako gastuei aurre egiteko BEHIN BETIKO berme (6) kontzeptuan.

Aseguratzaileak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 57.1 artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.

Prima ez ordaintzeak (bakarra, lehenengoa edo hurrengoak) ez dio eskubiderik ematen aseguratzaileari kontratua amaitzeko. Era berean, kontratua ez da amaitutzat joko, aseguratzailearen estaldura ere ez da bertan behera geratu eta azken hori ez da bere betebeharretik aske geratuko, baldin eta aseguratzailea bermea ordaintzera behartuta balego.

Aseguratzaileak ezingo ditu aurkatu aseguratuari aseguruaren hartzailearen aurka legozkiokeen salbuespenak.

Aseguratzaileak konpromisoa hartzen du, Tolosako Udalaren lehen eskaeran, aseguratuari kalte-ordainak emateko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako moduan.

Kauzio-aseguru hau indarrean izango da _____(e)(a)k (7) ezeztatu edo itzultzea baimentzen duen arte, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean eta legeria osagarrian ezarritakoaren arabera.

…….(e)(a)n, …….(e)ko ……...aren ……..(e)(a)n

Sinadura

Aseguratzailea

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

(1) Entitate aseguratzailearen izen sozial osoa azalduko da.
(2) Ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak
(3)Pertsona aseguratuaren izena:
(4)Asegurua zein zenbatekotan eratzen den, hizkitan emanda.
(5)Kauzioa emateko kontratua askitasunez (izaera, mota, etab.) indibidualki identifikatzea.
(6)Zein berme-modalitate den adieraztea (behin-behinekoa, behin betikoa, etab.)
(7)Tolosako Udaleko eskumeneko organoa.

V. ERANSKINA

INFORMATZEKO BETEBEHARRA, SPKL-REN 129. ARTIKULUAN XEDATUA

Enplegua babesteari, lan-baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean diren xedapenen inguruko informazioa

- Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

Enpleguko Zuzendaritza Nagusia
www.empleo.gob.es
Pio Baroja kalea, 6
28009 Madril
Tel: 913 631 801/2

- Laneko Osasun eta Segurtasunerako Euskal Erakundea (OSALAN)

http://www.osalan.euskadi.eus/inicio/
Zerbitzu Nagusiak: Dinamita kalea z/g, (Basatxu Mendia)
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Tel: 944 032 190

Gipuzkoako Lurralde Zentroa
Maldatxo bidea, z/g
20012 Donostia (Gipuzkoa)
Tel: 943 023 262

Fiskaltasunarekin lotutako betebehar orokorrei buruzko informazio orokorra

- Zerga Administrazioko Estatuko Agentzia

www.aeat.es
Zerga Informazioa
Tel: 901 335 533 / 915 548 770

- Gipuzkoako Foru Aldundia

https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna
Errotaburu pasealekua 2
20018 Donostia (Gipuzkoa)
Tel: 902 100 040

Tolosako Bulegoa
San Frantzisko 45
20400 Tolosa

- Tolosako Udala

www.tolosa.eus
Kontuhartzailetza
Plaza Zaharra 6
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel: 943 654 466

Ingurumena babestearekin lotutako betebehar orokorrei buruzko informazio orokorra

- Eusko Jaurlaritza

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/medio-ambiente/

- Tolosako Udala
Ingurumen Departamentua
www.tolosa.eus
Plaza Zaharra 6
20400 Tolosa
Tel: 943 654 466

Genero-berdintasunarekin lotutako indarreko xedapenei buruzko informazio orokorra

- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa
Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Erakundea.
Condesa de Venadito kalea 34
28027 Madril
Tel: 914 528 500

- Eusko Jaurlaritza
Osasun Saila
http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-salud/inicio/

- Tolosako Udala:
Berdintasun Departamentua
www.tolosa.eus
Plaza Zaharra 6
20400 Tolosa
Tel: 943 654 466

Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratze arloan indarrean diren xedapenei buruzko informazio orokorra, eta desgaitasuna duten pertsona kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharrari buruzkoa

- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa:
Desgaitasunari Laguntzeko Politiken Zuzendaritza Nagusia
Alcala kalea 37 E
28014 Madril
Tel: 915 961 000

- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa:
Zerbitzu Nagusiak: Condesa de Venadito kalea 9
28027 Madril
Tel: 915 859 888 (Zerbitzu Nagusiak) / 901 119 999 (Pertsonen arreta) / 901 010 121 (Enpresen arreta)

VI. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA ETA ZIFRA EDO EHUNEKOTAN BALORATU EZ DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA

……..…….jaunak/andreak, …… NAN zenbakiaren jabe denak, ☐ bere izenean / ☐ ..... sozietatearen izenean eta hura ordezkatuz, ……..……...….I.F.Z. zenbakia duen erakunde horrek ETE enpresen baldintzak ☐ BAI / ☐ EZ betetzen dituelarik, ... deitutako TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ. izeneko kontratazioan parte hartzeko xedez:

Bere erantzukizunpean ADIERAZTEN DU:

- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatea ordezkatzen duela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo, hala eskatuz gero, dagokion sailkapena dituela, jarduera burutzeko beharrezkoak diren baimenak dituela eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela.

- Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez gaineratzen dela:

  ☐ Bai, horregatik atxikitzen zaio honi VIII. Eranskina, egoki beteta eta sinatuta.

  ☐ Ez.

- Ordezkatzen duen enpresak (dagokion laukitxoa markatu):

  ☐ Amoa du ..... enpresa azpikontratzeko .....aren prestazio-zati bat egiteko, eta hori kontratuaren zenbateko osoaren % ..... da.

  ☐ Ez du prestazioaren inolako zatirik azpikontratatu behar

- Atzerriko enpresa dela:

  ☐ Bai, eta Espainiako edozein arlotako Epaitegi eta Auzitegietako araubidea jarraituko dudala, kontratuaren ondorioz, zuzenean zein zeharka, sor daitezkeen arazoak konpontzeko, eta legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko eginda, hala behar izanez gero.

  ☐ Ez.

- Ordezkatzen duen enpresan lan egiten dutela: (Adierazi dagokion laukia)

☐ 50 langile baino gutxiagok

☐ 50 langilek edo gehiagok (Adierazi dagokion laukia)

☐ Horien artean, gutxienez % 2 desgaitutako langileak izan behar direla adierazten duen betebeharra betetzen duela, Desgaitasuna duten pertsonei eta euren inklusoi sozialari buruzko eskubideen Lege Orokorreko Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezartzen dena.

☐ Desgaitasuna duten langileentzat gordetako kuota betetzeko neurri alternatiboak arautzen dituen apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboak betetzen dituela.

- Ordezkatzen duen enpresak lan eta gizarte arloan indarrean diren xedapenak betetzen dituela.

- Ordezkatzen duen enpresan: (Adierazi dagokion laukia)

☐ 250 langile baino gehiagok lan egiten dutela eta emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 2. idatz-zatian berdintasun-plan bat eratu eta aplikatzeari dagokionez ezarritakoa betetzen duela.

☐ 250 langile edo gutxiagok lan egiten dutela eta, aplikagarri den talde-hitzarmena aplikatuz, emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 3. idatz-zatian berdintasun-plan bat eratu eta aplikatzeari dagokionez ezarritakoa betetzen duela.

☐ emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 5. atala aplikatuz ez dagoela berdintasun-plan bat eratu eta txertatzera derrigortuta.

- Ordezkatzen duen enpresak baimena ematen diola Administrazio kontratatzaileari indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa eskuratzeko, hitzarmenak eratu dituen beste Herri Administrazio batzuetako datu-baseak baliatuz**.**

- Jakinarazpenak egiteko “gaitutako” helbide elektronikoa, SPKLren hamabosgarren Xedapen Osagarrian xedatutakoarekin bat etorriz: .....

Data eta lizitatzailearen sinadura.

DAGOKION KONTRATAZIO ORGANOARI ZUZENDUA

VII. ERANSKINA

ZIFRATAN EDO EHUNEKOTAN BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZAREN EREDUA

……..……..jaunak/andreak, …… NAN zenbakiaren jabe denak, ☐ bere izenean / ☐ ..... sozietatearen izenean eta hura ordezkatuz, ……..……...….I.F.Z. zenbakia duen erakunde horrek ETE enpresen baldintzak ☐ BAI / ☐ EZ betetzen dituelarik, kontratatzailearen profilean 2019ko……aren……..(e)(a)n argitaratutako iragarkiaren berri izanik, eta TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ kontratuaren adjudikaziorako eskatzen diren baldintza, betekizun eta laneko babes eta baldintzei buruzko betebeharren berri izanik, bere kargura haiek egikaritzeko konpromisoa hartzen du, adierazitako betekizun, baldintza eta betebeharrak betez, ……..Euroko (zenbakitan) **prezioan**, zeinari ……Euroko (zenbakitan) zenbatekoa baitagokio **BEZ** modura, eskaintzaren **prezio osoa ……..……..……eurokoa** (zenbakitan) izanik.

Hori guztiori, deialdiaren oinarritzat baliatzen diren baldintza tekniko eta administrazio klausula zehatzen agirian ezarritakoarekin bat etorriz, zeinaren edukia ezagutzen duela adierazten baitu eta osorik onartzen duen.

Bestalde, “Luminaria bakoitzean etiketa adimendunak jartzea” irizpidea baloratu ahal izateko, aitortzen du (markatu egokia dena):
Luminaria bakoitza ☐ HORNITUTA DAGO / ☐ EZ DAGO HORNITUTA QR, Bidi edo baliokideren bat duen etiketa digital batez, luminariaren kanpoko aldean eta luminariaren enbalajean jarria, eta luminaria entregatzen bada etiketaren ale gehiagorekin, euskarriaren edozein tokitan jartzeko. Etiketa digital bakoitzak eskaini behar du telefono mugikorraren aplikazio batez eskaneatzeko posibilitatea, horrela emateko, batetik, luminariaren ezaugarrien gaineko informazioa eta, bestetik, berme-aldiaren hasiera markatzen duen instalatutako data.

Aplikazioak ☐ AUKERA EMATEN DU / ☐ EZ DU AUKERA EMATEN ordezko driverra telefono mugikor edo tablet batetik zuzenean birprogramatzeko, hasierako konfigurazioarekin, haririk gabeko komunikazio baten bitartez (Bluetooth, NFC edo baliokide den teknologia erabilita).

Hori guztiori, deialdiaren oinarritzat baliatzen diren baldintza tekniko eta administrazio klausula zehatzen agirian ezarritakoarekin bat etorriz, zeinaren edukia ezagutzen duela adierazten baitu eta

osorik onartzen duen. Eskaintza hau eratzerakoan zerga-sistemari, ingurumenaren babesari, enpleguaren babesari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei, laneko arriskuen prebentzioari eta desgaitutako pertsonen gizarteratze eta laneratzeari dagokienez indarrean diren xedapenetatik eratorritako betebeharrak hartu dira kontuan, desgaitutako pertsona kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharrarekin batera.

Data eta lizitatzailearen sinadura.

DAGOKION KONTRATAZIO ORGANOARI ZUZENDUA

VIII. ERANSKINA

KAUDIMENA KANPO-BALIABIDEEKIN FROGATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA.

…….....……..jaunak/andreak, ……...……NAN zenbakiaren jabeak, …… IFZ zenbakia duen …….....……. erakundearen izenean eta hura ordezkatuz, Tolosako Udalak deitutako TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ izeneko kontratazioan parte hartzeko xedez;

ETA

…….....……..jaunak/andreak, ……...……NAN zenbakiaren jabeak,..... IFZ zenbakia duenak …….……erakundearen izenean eta hura ordezkatuz

Konpromisoa hartzen dute, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- …….....…… erakundeak duen kaudimena edo…….....…… erakundearen alde ipintzen dituen bitartekoak hauek direla:
-
-

- Kontratua egikaritzen den epealdi osoan zehar konpromiso honetan deskribatzen diren kaudimena edo bitartekoak benetan izango dituztela.

- Deskribatutako kaudimen edo bitartekoak benetan izatea ez dagoela inolako baldintza edo mugaren baitan.

Data

Lizitatzailearen sinadura

Beste erakundearen sinadura.

DAGOKION KONTRATAZIO ORGANOARI ZUZENDUA

IX. ERANSKINA: EZ DAGOKIO.

X. ERANSKINA: EZ DAGOKIO.

XI. ERANSKINA

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jasotako datu pertsonalak "Tolosako Udaleko Kontratazio" fitxategian gordeko dira. Honen helburua kontratazio prozedurak homogeneizatzea, arintzea eta normalizatzea da, jarduketa irizpideak berdinduz eta informazioa elkarbanatzen utziz.

Emandako datu pertsonalak, kontratua egikaritzen den bitartean gordeko dira. Datu hauen tratamendurako legezko oinarriak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean, eta 2016/679 Araubidean (EB) 2016/679 eta 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenean daude datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Edozein pertsonak du Tolosako Udalean bere datu pertsonalak erabiltzen ari diren edo ez jakiteko eskubidea. Pertsona interesdunek eskubidea dute oker dauden datuak zuzentzeko edota datu horien ezabatzea eskatzeko, berauek jasotzeko zioak desagertzen direnean.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek haien datuen erabileraren mugatzea eska dezakete; kasu horretan, gerta litezkeen erreklamazioetatik babesteko bakarrik erabiliko lirateke. Halaber, egoera zehatz batzuetan eta haien egoera pertsonalarekin lotutako arrazoiak direla medio, interesduna bere datuen tratamenduaren aurka ager daiteke. Egoera horretan, tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzeari utziko dio, arrazoizkoa eta ezinbestekoa den kasuetan izan ezik, edo gerta litezkeen erreklamazioetatik babesteko.

Tolosako Udalean erabiltzen diren datu pertsonalak interesdunak berak edo bere ordezkari legalak, Administrazio Publikoak edota Erregistro Publikoak eman ditu.

Erabiltzen diren datuen kategoriak hauexek dira: identifikazio datu, kode edo klabeak, helbide postal edo elektronikoak, merkataritza-informazioa edo datu ekonomikoak.

Tolosako Udaleko datuen trataerarako organo arduraduna da: Idazkaritza Departamentua; Datuen Babeserako Delegatuaren kontaktua: Idazkaritza.

EGINBIDEA: Administrazio-baldintza partikularren plegu hau Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu da 2019ko abuztuaren 9an.

DILIGENCIA: Este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía el día 9 de agosto de 2019.

Udal Idazkaria / La secretaria municipal